Herri erakundeen aldetik, 2020rako BCE bermatzeko aktibo nagusiak Euskadik kanpoan dituen ordezkaritzek osatzen duten azpiegitura, enpresetarako SPRIren laguntza sarea (2018ko hasieratik aurrera, Euskal Nazioartekotze Agentzia), eta Etxepare Institutuak koordinatzen dituen euskara eta euskal kulturako katedrak eta atzerriko unibertsitateetako irakurle postuak dira. Horiei Basquetour Euskal Turismo Agentziak atzerrian egindako lana, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik bultzatutako nazioarteko jarduera eta Basque Team Fundazioak euskal kirolariei nazioarteko lehiaketa gorennetan parte hartzeko eman dizkien eskuarteak gehitu behar zaizkie.

Eusko Jaurlaritzak nazioartean dituen ordezkaritzen kasuan, sarea sei bulegok osatzen dute eta Euskadiren interes orokorretarako estrategikoak diren guneetan kokatuta daude:

Ameriketako Estatu Batuak, Mexiko, Argentina, Txile, Kolonbia eta Brusela. Ordezkaritza horiekin batera SPRIren kanpo azpiegitura dago, euskal enpresen eskura bere bulego sarea eta aholkularitza espezializatuak jartzen baititu bost kontinenteetako 80 herrialde baino gehiagotan, esportazioa, atzerrian finkatzea eta atzerri inbertsio zuzena Euskadira erakartzea sustatzeko. Horren osagarri, eta euskal kultura eta euskara proiekatzeko, Etxepare Institutuak katedrak ditu Estatu Batuetako, Alemaniako, Erresuma Batuko eta Frantziako unibertsitateetan, eta, gainera, euskarazko irakurle postuak Europako, Ameriketako eta Asiako unibertsitateetan barreiatuta.

Eremu pribatuan, bere tradizio, gaitasun eta hedaduragatik nabarmentzen da mundu guztian zabaldutako 190 baino gehiago Euskal Etxek osatzen duten sarea, giltzarri baitira euskal balioak eta kultura nazioartean zabaltzeko.

Enpresa sektorean, nazioartekotze maila desberdineko antolakundeek, eta eremu geografiko eta tematiko desberdinietan, proiekzioa eta ikusgaitasuna eman diote Euskadiri atzerrian azken hamarkadetan. Argigarria da kluster industrialak bereziki nabarmentzen direla ikustea, hala nola GAIA (IKT), ACLIMA (ingurumena), HEGAN (aeronautika), ACICAE (automobilgintza), AFM (makina tresna) edo Basque Energy Cluster (energia), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak.

Horren osagarri, hezkuntza (euskal unibertsitatea, Musikene, TKNIKA edo Basque Culinary Center), garapenerako lankidetza edo kultura (Donostiako Zinemaldia, Guggenheim Museoa, Bilbao Exhibition Center) bezalako esparru hain desberdinako erakundeek lagundu egin dute nazioarteko proiekzio finkatua duten eragileen ekosistema bat sortzen, izaeraz heterogeneoa dena eta fase honetan etengabe hazten ari dena. 2020rako BCEk, tresna integratzaile eta horizontala den aldetik, bere zabalkunderako kontuan hartuko duen aktibo bat osatzen dute.

Eragile pribatu horien eta sektore publikoaren uztardurari eta koordinazioari dagokienez, badaude tresnak sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazioan efizientzia eta eraginkortasuna irabazi ahal izateko, nazioartekotzearen arloan. Maila orokorrean, Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua, Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea eta Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea daude. Sektore mailan, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea edo Euskal Nazioartekotze Partzuergoa bezalako eztabaidaguneek Estrategia zabaltzerakoan koordinazioa hobetzen laguntzen dute. Azken tresna hau, 2014an martxan jarria, euskal ganberek, hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak osatutako topaleku, eztabaidagune eta elkarlanerako plataforma bat da, eta enpresak nazioartekotzea sustatzerakoan gaitasunen eta sinergien onurak jasotzea du helburu.

Lehen aipatutako eragileek nazioartekotze kultura bat sortu izanari esker, jarduera nazioarteko ingurunean garatzeko prestatu, entrenatu eta espezializatutako talentu oinarri bat ere ezarri da. Euskadik maila globalean estrategikoki posizionatzeko daukan gaitasun iturria da talentu hori. Ildo horretan, Euskal Herriko, Deustuko eta Mondragon unibertsitateek prestakuntza eta ikerketa programak eskaintzen dituzte nazioarteko harremanen gainean ikuspegi desberdinatik, eta, atzerriko beste ikastegi batzuekin dituzten akordio eta aliantzen bitartez, beren ikasleen nazioarteko mugikortasuna bultzatzen dute eta euskal gizarteari nazioartekotu dadin ezagutzak eta tresnak ematen dizkiote. Horren osagarri, BEINT bekak, Global Training bekak, Kanpo Harremanetako bekak, euskal etxe eta gizataldeen bekak, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa edo Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko mugikortasun bekak bezalako ekinbideek nazioartekotze trebetasuna handitzea ekarri dute, gaur egun beren jarduera bai Euskadin bai mundu guztiko antolakundeetan garatzen duten euskal profesionalen eskutik.

Azken batean, euskal azpiegiturek eta sareek atzerrian duten egonkortasuna, hainbat eta hainbat euskal eragilek nazioartean iritsi duten tradizioa eta ospea, nazioartekotze estrategia koordinatu eta integratzaile bat edukitzea eta nazioartekotzen prestatu eta entrenatutako talentua izatea giltzarriak dira Euskadik bere proiekzioa eta posizioa handitzeko dauzkan aktibo eta gaitasunek oinarria izan dezaten.

2.3. X. Legegintzaldiko lorpen handienak

Gobernu eremu guztielarako nazioartekotze politika integratu eta horizontal bat zehaztea, Euskadi Basque Country marka sortzea, Euskadik Europan duen posizioa hobetzea, erakunde harremanak sendotzea batez ere lehentasunezko herrialdeekin eta kide estrategikoekin, sare tematikoetan txertatzeko akordioak bultzatzea, edo nazioarteko topagune garrantzitsuetan parte hartzea, horra hor 2020rako BCEren itzalpean erdietsitako lorpen nagusietako batzuk nazioartekotze arloan.

Maila orokorrean, X. legegintzaldian erdietsi den funtsezko lorpen bat nazioartekotze estrategia integratu bat hezurmamitzea izan da, eta horrek, maila guztielan eta eremu guztielan partaidetza eta koordinazio bideak erabiliz, erakundeetako eragileen adostasun eta atxikimendu mailak areagotzea ahalbidetu du. Izan ere, jarduera horren guztiaren jarraipena egiten duten Kanpo Harremanetarako Sail arteko eta Erakunde arteko Batzordeak finkatu egin direnez, sinergia positiboak sortu dira eta Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren jarduera eremu guztielan nazioartekotze kultura finkatzen ari da. Beste alde

batetik, 2016ko uztailean Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortuaz, euskal nazioartekotze estrategia zehazten eta abiarazten euskal gizartearren partaidetza formalizatu egin da.

Bestalde, Euskadi Basque Country markaren sorrera eta zabalkundea erabakigarria izan da atzerrian Herrialde fidagarri, kohesionatu, lehiakor eta identitate bereizikoaren irudia proiektatzeko eta horrela Euskadik kanpoan duen pertzepzio positiboaren sinergiak aprobetxatzeko. Horretarako, ikur berri hau edukiz hornitu da, eta www.basquecountry.eus webgune garatua edo kirol taldeak eta ekitaldiak babestea bezalako ekinbideak atera dira. Gainera, marka nazioartean garrantzitsuak ziren uneetan erakutsi ahal izan zaio munduari, esaterako, Donostia 2016an Europako Kultura Hiriburua izan den bitartean.

Kanpo harremanen esparruan, Euskadik aldi honetan lehentasuneko herrialdeekin eta kide estrategikoekin izan dituen harreman multzoa ugaldu egin du, eta ordezkaritza diplomatikoei arreta berezia eskaini die. Europan ere, euskal autogobernuari eragiten dioten politikekin zerikusia duten erabaki eta eztabaidetan, presentzia handiagoa irabazi du. Ildo horretan, Euskadiren Aliantza Estrategikoen Sarea sortzea nabarmendu behar da, atzerrian eragin-ahalmena irabazteko eta euskal interesak aldezteko. Alde bitako hitzarmenak izenpetu dira harremanak sendotzeko eta lankidetza estutzeko Quenetara (2014), Bavaria (2014) eta Flandriarekin (2015), lehenago Akitania (1989) eta Jiangsurekin (2012) izenpetutakoei gehitzen zaizkienak. Horren osagarri, hitzarmen sektorialak izenpetu dira, besteak beste, AEBetako Minnesota estatuarekin (lanbide heziketaz, 2014); Argentinako Santa Fe probintziarekin (enpleguaz eta gizarte politikez, 2014); Mexikorekin (osasunaz, 2015) eta Txileko Nekazaritzaren Idazkariordetzarekin (nekazaritzaz, 2016).

X. legegintzaldian harreman diplomatikoak ugaldu egin dira, Lehendakariak alde bitako 80 bilera izan baititu 57 herrialdetako enbaxadoreekin, eta gainera alde anitzeko 7 bilera Europar Batasuneko (2013, 2014, 2016), ASEANgo (2015), Visegrádeko Taldeko (2015) eta Latinoamerikako (2014) enbaxadoreekin eta Arabiar ligako kideekin (2013). Gainera, Lehendakaria aitzindari zuten maila goreneko erakunde bidaia egin dira EBeko erakundeetara (2013, 2016), Ameriketako Estatu Batuetara (2013 eta 2015), Mexikora (2014), Akitaniara (2014), Flandriara (2015), Alemaniara (2015) eta Andorrara (2015). Beste alde batetik, SPRIk enpresei kanpoan laguntzeko duen sarea handitu du bulego berrieikin, besteak beste, Singapur, Londres edo Munichekoak, eta Etxepare Institituak doktorego berriak sortu ditu Illinois, Paris (Sorbonne IV) eta Habanan (2015), eta Edinburgh eta Kalifornian (2016). Paraleloan, Euskadiko presentzia kontsularra handitu egin da Txekiar Errepublikaren, Hungaria, Brasil eta Estoniaren kontsulatuak sortuz (2013); Suediarena eta Filipinen (2014); Kolonbia eta Esloveniarenak (2015); eta Islandiarena (2016).

Nazioarteko antolakundeekiko harremanei dagokienez, UNESCOrekin Aditze Memoranduma izenpetu zen 2016an, berrikuntza, sormena eta gizarte ongizatea bultzaturik, kultura ondarearen sustapenean sakontzeko. Nazio Batuen esparruan, Euskadik 2015ean Parisko COP21 Klima Aldaketari buruzko Gailurrean parte hartu zuela ere azpimarratzeko da. Munduko ekitaldi garrantzitsu horretan, Lehendakariak, The Climate Group nazioarteko ingurumen antolakundearen Europarako presidentekidea izan zenak, klima aldaketaren ondorioak apaltzearen aldeko apustua iragartzearen ardura izan zuen, bai aliantza honena bai Euskadiarena.

Kanpoko zabalkunde hau, gainera, sare tematikoetan txertatzeko akordioak hezurmamitzearekin eta Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak eta bere sektore publikoak horietan modu proaktiboan parte hartzearekin osatu da, helburu birekin: nazioartean abangoardiako estrategia sektorialak ezagutzea eta euskal proposamenak erabakigune nagusietan proiektatzea. Guztira, Euskadik nazioarteko 75 saretan hartzen du parte, horietatik 55 Europakoak eta 20 globalak. Horietatik nabamentzekoak dira, besteak beste, Abangoardiako Ekimena, EBko 29 eskualde industrialenen aliantza, Euskadi kide sortzailea dena; EUNIC (European Union National Institutes), Etxepare Institutua partaide duena; EARLAL, etengabeko ikaskuntzarako eskualdeen sarea, Lanbide Heziketako sailburuordea presidente duena; UNESCO-UNEVOC International Centre, TKNIKA kide dena; NECSTOUR (Network of European Regions for Competitive and Sustainable Tourism), Basquetour sartuta dagoena; CPRM (Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzia), Euskadi Arku Atlantikoko ozeano energien taldeko aitzindari duena; edo ERRIN (Europako Eskualdeen Ikerketa eta Berrikuntza Sarea), Euskadi fabrikazio aurreratuko eta nanoteknologiako lantaldearen koliderra dena.

2.4. Etorkizuneko aukerak eta erronkak

Lehia handiko panorama honetan, lurrealdeek bisitariak, talentua, nazioarteko diplomazia, bezero edo inbertsiogile potentzialak erakartzearen, eta horrela nazioartean txoko bat lortzearen, erabakigarria da aukerei aurrea hartzea eta prest egotea munduan gertatzen diren aldaketen ondorioz sortzen diren erronkei aurre egiteko.

Nazio Batuen ikuspegitik, datozen hamabost urteak 2030 Agendan ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeak markatuko ditu, 2015ean onartu ondoren, aplikatzea falta da eta. Ildo horretan, Euskadiri helburu horiek bere politika publikoetan integratzearen erreferentzia izateko aukera agertu zaio, horrela nazioartearren aitortza lortzeko.

Europako testuinguruan, datozen urteetako erronka handietako bat Erresuma Batua EBtik irteeta izango da, merkataritzan, diplomazian edo gizartean izan ditzakeen eraginak moteltzeko bideak ezarri beharra ekarriko baitu, baina izan liteke horrexek berak aukerak sortzea enpresak, bestelako antolakundeak eta erakundeetako ordezkaritzak erakartzeko.


Europaren giroan jarraituta, Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuriak prozesu bat ireki du datozen urteetako EBren ikuspena, gobernantza eta etorkizun estrategikoa erabakitzeko. Dokumentu horrek etorkizuneko bost jokaleku posible proposatzen ditu Europaren proiekturako, orain arte bezala jarraitzetik Europa Federal batean sakontzeraino doazenak, arlo guztiako eskumen, baliabide eta erabakimen gehiago elkarri emanaz. Gainera, teknologia berriek gizartean eta enpleguan duten eraginaz, globalizazioaz, segurtasun arloko arazoez, populismoen gorakadaz eta munduko beste leku batzuekin alderatuta europar populazioa jasaten ari den zahartze eta gutxitzeaz hausnarketa bat proposatzen da. Esparru horretan, estatuen azpiko erakundeek eta estaturik gabeko nazioek europar proiektuan duten zeregina nabarmentzeko aukerak sortu daitezke.

Aukerak eta erronkak sortuko dira Batasunak 2018tik aurrera Europako Batzordeko presidentearen arabera izango dituen bost ardatzetatik abiatuta: (i) Europaren merkataritza agenda indartua; (ii) industria indartsu eta lehiakorragoa; (iii) klima aldaketaren aurkako borrokaren aitzindari izango den Europa; (iv) europarren babes handiagoa garai digitalean eta (v) immigrazioa ikuspegian daukan Europa. Ildo horretan, harreman ekonomikoен arloa garrantzi berezikoa da, EB egiten ari den merkataritza irekierak negozio aukera berriak sortuko baititu Kanadarekin lortutako akordioari eta bereziki Japoniarekin, Mexiko, Australia, Zeelanda Berriarekin eta Hegoameriketako herrialdeekin egiten ari diren negoziazioei esker; izan ere, horietako batzuk lehentasuna dute Euskadirako.

Bestalde, elkarri gero eta konektatuago dagoen mundu batean, digitalizazioaren aurrerapenak aukera bat dira euskal gizarteak mundu guztiarekin duen konexioa optimizatzeko. Ildo horretan, industriaren robotizazioa, adimen artifizialaren gorakada, merkataritza elektronikoaren eragina, gizartean trebetasun digitalak garatzea, zibersegurtasunaren kudeaketa edo Big Data Euskadik atzerriarekin duen harremanari eragingo dioten gauzak dira, eta, horregatik, oso kontuan hartu beharko dira datozen urteetan. Digitalizazio handiagoak aldi berean Euskal Erkidego Globala eraikitzeko ateak irekitzen ditu.

Azkenik, barrualdeari dagokionez, erronkarik handiena sailen plangintzan 2020rako BCEren zeharkakotasuna bultzatzen jarraitzea, horren aplikazioan erakundeen arteko koordinazio handiagoa lortzea eta Euskadin maila guztieta eta esparru guztieta, lankidetza eta zabalkunde mekanismoen bidez, nazioartekotzearen kultura barneratuko duten eragile

sozioekonomikoak eta erakundeak atxikiaraztea izango da. Horren guztiaren xedea Euskadi Basque Country proiektatzea, atzerrian posizio hobea lortzea, nazioartean abangoardiarekin eta erabaki zentroekin konektatzea, aukerak harrapatzea eta erronka globalei erantzun eraginkor eta efikazak ematea da.



3.

ESPARRU KONTZEPTUALA

3. ESPARRU KONTZEPTUALA

Kapitulu honek bere barruan hartzen du 2020rako Estrategiaren eguneratzea kokatzen den programa agiri eta jarraibideen multzoa: XI. Legegintzaldiko Jaurlaritzaren Programa, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, Europa 2020 Estrategia eta Garapenerako Politiken Koherentzia Esparrua.

3.1. XI. Legegintzaldiko Jaurlaritzaren Programa

XI. legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programak Eusko Jaurlaritzak datozen lau urteetarako hartu dituen konpromisoak jasotzen ditu. Konpromiso hauek 4 oinarriean azaltzen dira:

1. Taula: XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programaren oinarriak

- I. Enplegua, ekonomiaren suspertza eta jasangarritasuna
- II. Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak
- III. Bizikidetza eta Giza Eskubideak
- IV. Autogobernu gehiago eta hobea

Iturria: Euskadi 2020 - XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programa

"Euskadi Basque Country" nazioartekotze estrategia Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldiko giltzarritzat ezartzen dituen 15 plan estrategikoetako bat da. Horrela, Euskadin ber aktibazio ekonomikoa eta enplegua finkatzeko berma guneetako bat da nazioartekotzea. "Euskadi Basque Country" nazioartekotze estrategiak I.1 ardatza du esparru. Hazkuntza sendoa enplegu gehiago eta hobearekin, I. oinarrian: XI. legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programako Enplegua, Ekonomiaren suspertza eta jasangarritasuna.

2020rako BCE Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programaren zutabeetako bat da. Programa honek bildu egiten du eta estrategia global bat da, bost plan estrategikotan konkretatzen dena: 2020rako BCE bera, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP 2020), 2017-2020 Industrializazio Plana eta 2020rako Inbertsio Programa.

Era berean, XI. legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programak ehun eta hirurogeita hamabost programa ditu, eta horietako hamahiruk nazioartekotzea aipatzen dute. Konpromiso horiek kanpo harremanen, enpresak nazioartekotzearen, turismo, azpiegitura eta garraioen, gobernantza publikoaren, kultura eta euskararen, lanbide heziketaren,

unibertsitateen eta garapenerako lankidetzaren esparruetan berariazko ekinbideak egikaritza inplikatzen dute.

Hurrengo taulak XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programak jasotzen dituen nazioartekotzeko ekimenak aurkezten ditu hartutako hamahiru nazioartekotzeko konpromisoetan.

2. Taula: Nazioartekotzeko Konpromiso eta Ekimenak

| KONPROMISOAK | EKIMENAK |
|--|---|
| 21. konpromisoa: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean | <ul style="list-style-type: none"> ■ Euskadi-Basque Country marka indarteko nazioartekotzeko estrategia bateratua garatu ■ Kanpoko sare integratu batekin jardun, eta Euskadiren atzerriko ordezkaritzen eta bulego sektorialen sarea indartu ■ Baskide estrategikoekin harreman handiagoa izan, Euskadiren kanpo-harremanak proiektatzeko; horretarako, nazioarteko erakundeekin eta estatuz azpiko entitateekin lankidetza-hitzarmenak sinatuko dira, eta learning tour ekimena indartuko da |
| 22. konpromisoa: Europako erakundeetan parte-hartzte aktibo eta zuzena izan | <ul style="list-style-type: none"> ■ Ahalik eta gehien indartu Euskadik erabaki-esparru komunitarioetan duen parte-hartzea, batik bat Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzardearen batzorde teknikoetan ■ Euskadi-Estatua bitariko batzordea berreskuratu, Europako gaiak eta kanpo-harremanak aztartzeko ■ Euskal eragileek sare, ekimen eta proiektu transeuroparretan parte hartea sustatu ■ Europako nazioekin eta eskualdeekin duen harremana indartu |
| 23. konpromisoa: Euskal euroskaudearen lurralte-antolaketa indartu | <ul style="list-style-type: none"> ■ Euskadi-Nafarroa-Akitania euroskaudea finkatu ■ Mugaz gaindiko lankidetza indartu, eta lankidetza - hitzarmenak sustatu EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Mankomunitatearen artean |
| 24. konpromisoa: Euskal komunitate globala sustatza, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa | <ul style="list-style-type: none"> ■ Euskal Diasporak egindako ekarpenaren berri eman Euskadin, ekonomiari, kulturari eta euskal gizarte globalaren garapenari egin dion ekarria ezagutarazteko ■ Euskal Etxeen sare fisikoa indartu eta zabaldu ■ “Basque Global Network” sare birtuala sendotu |
| 25. konpromisoa: Enpresak nazioartekotzeko bultzada, “Basque Country” Estrategiaren parte | <ul style="list-style-type: none"> ■ Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Plana ezarri, “Basque Country” Nazioartekotzeko Euskal Estrategiaren testuinguruan, Basque Consortium-Nazioarteko Euskal Partzuergoa indartuz ■ Spri-ren kanpo-sarea indartu, lehentasunezko herrialdeetan zabaltzen jarraituz ■ Nazioartekotzeko estrategiak evaluatu, aztertu eta zehazteko Adimen Lehiakorrek Unitatea sortu ■ Euskal enpresari nazioartekotzeko eta aukera ekonomikoak bilatzeko laguntza eman. BC Lizitazio Plataforma sortu ■ Enpresen esportazio-jarduerari laguntzeko programak indartu ■ Giza kapitala prestatu eta trebatu, Nazioartekotzeko Bekak eta Global Training Bekak ematen jarraituz ■ “Invest in the Basque Country” estrategia indartu, atzerriko enpresak Euskadira lotzeko eta erakartzeko tresna gisa ■ “Basque Country” marka |
| 30. konpromisoa: Herriaren turismo-marka, Euskadi Basque Country | <ul style="list-style-type: none"> ■ Gure helmuga berezi egiten duten elementuak sustatu, Euskadi Basque Country marka turistikoa kokatzeo oinarrizko erreferentzia gisa ■ Gure turismo-enpresen nazioartekotze-proiekturetan lagundu, turismo-jarduera erakartzen laguntzeko ■ Euskadi marka sustatu nazioarteko foro eta azoketan, Euskadi Basque Country nazioartekotzeko estrategiari jarraituz ■ Euskadi Basque Country herri-marka gisa proiektatu, erakundeen eta agente publiko zein pribatuen kudeaketa-estrategia koordinatua baliatuz ■ Euskadi Basque Country helmuga sustatu, euskal turismo-administrazioaren elementu integratzaile eta harmonizatzaile gisa |
| 40. konpromisoa: Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu | <ul style="list-style-type: none"> ■ Mugaz gaindiko garraio-politikak garatu; eskualdeetako agintariekin lankidetza izatea bultzatuko da, zerbitzu-eskaintza optimizatzeko xedez |

| | |
|--|---|
| 62. konpromisoa: <i>Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi</i> | <ul style="list-style-type: none"> ■ Gobernantzaren eta Berrikuntza Publikoaren 2020 Plan Estrategikoa onartu, Gobernu Programa honetan administrazio publiko, berritzale, ireki eta parte-hartzailea eraikitzeko jaso diren konpromisoen lana plifikatzeko |
| 100. konpromisoa: <i>Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu</i> | <ul style="list-style-type: none"> ■ Lanbide Heziketako Euskal Campusa bultzatu ■ Atzerrian egoitzak dituzten euskal enpresei lagundu |
| 105. konpromisoa: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin. | <ul style="list-style-type: none"> ■ Euskal Unibertsitate Sistemari lotutako nazioarteko bikaintasunezko campusak sustatu ■ Euskal unibertsitateetan eta bikaintasunezko ikerkuntza zentroetan diharduten langileen eta ikasleen nazioarteko mugikortasuna erraztu ■ Nazioartean ere lankidetzen areagotzea ahalbidetzen duten irakasteko ereduak eta prestakuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea ebalutzeko ereduak bultzatu ■ Nazioarteko lankidetza babestu Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateen artean, bai eta haien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko gainerako eragileen artean ere |
| 112. konpromisoa: <i>Erreferentziak azpiegituraren egiten diren ekitaldien eginikizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu.</i> | <ul style="list-style-type: none"> ■ Erreferentziak erakundeek eta ekitaldiek duten eginkizun eragilea indartu |
| 120. konpromisoa: Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiekzioa sustatu, Etxepare Instituaren bidez | <ul style="list-style-type: none"> ■ Etxepare Instituaren rola indartu, Euskadiren esanetara dagoen kutura-arloko diplomaziazko tresna gisa |
| 171. konpromisoa: <i>Lankidetza-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan</i> | <ul style="list-style-type: none"> ■ Estatu-mailan aliantzak garatzea bultzatu, Estatu-, Europa- eta nazioarte-mailan, ekimen estrategikoak abian jartzeko |

Iturria: Euskadi 2020 - XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programa

3.2. Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak bere barruan hartzen ditu Nazio Batuen Erakundeak (NBE) zehaztutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GIH) eta 2015eko irailean onartu zen. GIH helburuek garapen iraunkorreko esparru batean 2030ean iritsi behar diren berariazko xedeak ezartzen dituzte.

Opاراتuna bultzatzeko neurrietatik aldi berean Lurra babesteko balio dutenak hartzeko gonbita egiten du 2030 Agendak. Pobrezia ezabatzeko ekimenak ekonomiaren hazkundea bultzatzen duten eta gizarte premia sorta bati ekiten dioten estrategien eskutik joan daitezela proposatzen du, gizarte premia horiek, besteak beste, hezkuntza, osasuna, gizarte babes eta enplegu aukerak izaki, eta ekimen horiek gainera klima aldaketaren aurka eta ingurumenaren babesaren alde joka dezatela. GIH helburuak 2014an 2020rako BCE onartu ondoren erabaki zirenez, Estrategia eguneratzeak aukera ematen du Euskadik GIH helburuekin duen konpromisoa argi eta garbi txertatzeko..

3. Taula: Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

- **1. Helburua:** Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.
- **2. Helburua:** Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
- **3. Helburua:** Guztiontzat eta adin guztiengan bizi modu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
- **4. Helburua:** Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz zko berdintzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukera bultzatzea.
- **5. Helburua:** Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahal duntzea.
- **6. Helburua:** Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
- **7. Helburua:** Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
- **8. Helburua:** Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.
- **9. Helburua:** Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
- **10. Helburua:** Herrialde bakotzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.
- **11. Helburua:** Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboa, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
- **12. Helburua:** Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.
- **13. Helburua:** Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaetari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).
- **14. Helburua:** Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira.
- **15. Helburua:** Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearren aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
- **16. Helburua:** Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboa sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorak eta inklusiboa sortzea maila guztietai.
- **17. Helburua:** Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

Iturria: Nazio Batuen Erakundea

GIH helburuak zeharkakoak dira eta elkarrekin erlazionatuta daude, hau da, baten arrakastak besteenari eragiten dio. Klima aldaetaren mehatxuari erantzuteak baliabide naturalak kudeatzeko moduari eragiten dio. Genero berdintasuna lortzeak edo osasuna hobetzeak pobrezia ezabatzen laguntzen du; eta bakea eta inklusiozko gizarteak sustatzeak desberdintasunak gutxitzen ditu eta ekonomien oparoaldiari laguntzen dio. Pobreziari leku guztietai azkena behin betiko emateko nazioarteko konpromisoa berresten dute.

Definizio fasetik, Agendak garantzi handia eman dio lurralte dimentsioaren sustapenari eta estatukoa ez den eskalara egokitzeari, jakitun egonik sarritan estatuz azpiko erakundeak direla, euskal administrazioaren kasuan bezala, eskumenak, baliabideak eta gizarte errealtitate eta premien berariazko ezagutza dutenak.

3.3. Europa 2020 Estrategia

Europa 2020 Estrategia EBren 2020. urtera arteko hazkuntza eta enplegu agenda da. Hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzalea markatzen du Europako ekonomiaren

gabezia estrukturalak gainditzeko, bere lehiakortasun eta emankortasuna hobetzeko eta merkatu ekonomia sozial iraunkor bati eusteko oinarritzat.

Europa 2020 Estrategia erreferentzia esparrua da EB, estatu eta eskualde esparruetan jarduteko. Ildo horretan, XI. Legegintzaldiko Gobernu Planean zehaztutako Herrialde helburu estrategikoak enplegu, berrikuntza, hezkuntza, klima/energia eta gizarteratze arloan bat datozen Europa 2020 Estrategiak ezarri dituen bost helburuekin:

- Enpleguan, 20 eta 64 urte arteko pertsonen % 75i lana bermatzea.
- Ikerketa eta garapen arloan, EBren BPGd-aren % 3 inbertitzea.
- Klima aldaketari eta energiari dagokionez, berotegi efektuko gas isuriak % 20 murriztea 1990eko mailekin alderatuta, energia berritzagarriak guztiaren % 20 izatera iristea eta energia efizientzia % 20 areagotzea.
- Hezkuntzan, eskola bertan behera uzten dutenen tasa % 10en azpitik jaistea eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen gutxienez % 40k goi mailako ikasketak amaituta izatea lortzea.
- Pobreziaren eta gizarte bazterketaren arloan, pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen kopurua gutxienez 20 milioi gutxitzea.

Aurreko helburuek 2020an Europar Batasunaren parametro nagusiek nondik norakoak izan behar duten panorama global bat eskaintzen dute. Kide den estatu bakoitzeko helburutan konkretatzen dira, EBko herrialde bakoitzak xede bakoitzerantz zenbat aurreratzen duen bere kabuz ebaluatu ahal dezan. Erlazio bat dago beren artean, eta elkarri ematen diote indarra: hezkuntzako hobekuntzek enplegarritasunari eta pobrezia murrizteari laguntzen diote; I+G, berrikuntza eta energia eraginkorrago erabiltzea lehiakortasuna areagotzeko eta enplegua sortzeko dira, eta teknologia garbiagoetan inbertitzeak klima aldaketaren kontra egiten du eta negozio edo enplegu aukera berriak sortzen ditu.

3.4. Garapenerako Politiken Koherenzia

2016ko apirilaren 5ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Garapen Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua onartu zuen, politika publikoak diseinatu, abiarazi eta ebaluatzerakoan giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegiaren integrazioa eta horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna aurreikusten dituena.


Egoera horretan, Eusko Jaurlaritzak barneratu egiten du garapenerako politiken koherentiak gobernu lanaren oinarrizko erreferentzia bat izan behar duela, bai barne garapen-estategiei eragiten dienean bai kanpo harremanei edo gai bien arteko erlazioari

dagokienez. Konkretuki, Euskadi nazioartekotzeak euskal gizartearen beharrak asebetetzeko aukera emango duen garapen bat sustatu behar du, eta beste herrialde eta lurralte batzuetako giza beharrekin elkargarria izango dena.

Nolanahi ere, gizartearen pluraltasunak eta dauden interes eta gatazken anitzasunak zaildu egiten dute politikaren koherentzia bete-betekoa, eta pluraltasun horren aitortza eta errespetua abiapuntu hartuta politiken koherentzia handiago baterantz aurrera egin behar dela azpimarratzen da, gizarte zuzenago, berdintsuago eta iraunkorrago bat lortzeko.

Hori guztia Europar Batasunetik beretik erakutsitako arduren ildoan dago, 1992an izenpetu zen Maastrichteko Itunean jaso zen bezala, hots, "Europar Batasunak bere kanpo jardueraren osotasunaren koherentzia ziurtatu behar du kanpo arazoetako, segurtasuneko, ekonomiako eta garapeneko politiken esparruan". Hortaz, beharrezkotzat jotzen da efizientzia sozial eta ekologikoaren defentsan oinarritutako lehiakortasun nozioa bultzatzea, sustatu nahi den ereduaren nortasun ikur gisa.

Ikuspegi honetatik, 2020rako BCEk, eta Eusko Jaurlaritzaren kanpo harreman osoak, pertsonen eskubideetan eta baliabideak etorkizuneko belaunaldientzat kontserbatzean oinarritutako elkarbizitza esparru baten defentsa eta Euskadi ekonomia globalean egoki txertatzea bultzatu behar dute aldi berean.



4.

EUSKADI BASQUE COUNTRY 2020 NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA

4. EUSKADI BASQUE COUNTRY 2020 NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA

Kapitulu honetan Eusko Jaurlaritzako sailetarako eta bere sektore publikorako nazioartekotzeko jarraibide estrategikoak ezartzen dira 2018-2020 aldirako. Ikuspegia, ikuspena, nazioartekotzeko helburuak, nazioartekotzeko bektore komunak eta jarduteko eremu tematiko eta geografikoak deskribatzen dira. Estrategia hau euskal erakunde eta eragile guztientzako gonbita da, norabide berean denok batera egin dezagun lan, markatu den ikuspena egia bihurtze aldera.

4.1. Ikuspegi estrategikoa eguneratzea

XI. legegintzaldian 2020rako BCE egokitzeko beharra sortu da, 2014 urtearekin alderatuta aldatu egin den nazioarteko jokalekura egokitzeko. Estrategiaren pisu nagusia erakundeen kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzeak, kulturak eta turismoak izaten jarraitzen du, eta eguneratze honetan, 2020 arteko aldi berrian garatuko duten nazioarteko jarduera garrantzitsuagatik, garapenerako lankidetza eta kirola erantsi dira. Era berean, beste arlo batzuen pisua handitzen jarraituko da.

2020rako BCE eguneratzea Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programan zehaztutako ikuspenetik eta nazioartekotzeko konpromisoetatik abiatu da. Nazioartekotzeko bektore komunak, nazioartekotzeko asmoa finkatzeko eta jarduera eramateko ardatz modura zehaztuak, funtsean berdin jarraitzen dute aldaketaren batekin: 2030 Agendan zehaztutako erronka globalei erantzuten laguntzeko konpromisoa gehitu da eta bektore batzuen izena aldatu da beren zertarakoa hobeto islatzeko. 2018-2020 aldirako bektoreak hauek dira:

- Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea
- Interes sektorialak bultzatu eta sustatzea
- Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea
- Europaren proiektuari laguntzea
- Ezagutza biltzea

Izaera integrala eta zeharkakoa duelako, 2020rako BCE zabaldu egin da legegintzaldi honetan 27 ekintza arlotara, zeuden batzuk bananduz eta beste batzuk gehituz, nazioartekotzeko duten potentzialagatik eta horietan jarduera bereizlea egin delako. Halaber, 2014an argitaratu zenean, Estrategiak modu eskematikoan jasotzen zuen gobernuaren nazioartekotzeko jarduera zein arlotan garatuko zen, jarduera hori ikasteko edo irakasteko arloetan sartzen ote zen kontuan hartuta. Estrategia egikaritu den lehen urteetan jarduera horrela zatitzeak erakutsi duen zaitasunen ondorioz bereizketa hori kendu egin da, nazioartekotzeko ekintza asko alde batera nahiz bestera uler baititezkeen.

2020rako BCEren eguneratzea martxan jartzeak nazioartekotzean ekintza egituratu eta sistematiko baten moduan sakontzea implikatzen du, eta gainera zenbait arlo tematikoetan plan sektorialak zehaztu eta onartuz egin ahal izatea. Plan sektorial horiek monitorizatu ahal izango diren eta emaitzak emango dituzten ekintza ildoetan eta ekintzetan konkretatuko dira.

Joan den legegintzaldian, bi izan ziren Estrategiaren itzalpean onartu eta egikaritu ziren nazioartekotzeko plan sektorialak: Kanpo Harremanetarako Plana eta Enpresak Nazioartekotzeko Plana.

XI. legegintzaldirako, Kanpo Harremanak, Enpresak Nazioartekotzea, Kultura eta Garapenerako Lankidetza arloez gain, bakoitzak bere nazioartekotze plana egingo baitu, sektore askotako kanpo proiekzioa hartu da kontuan, 2020rako BCEren mendean onartutako plan sektorialen kopurua zabaldu ahal izateko.

Jarduteko eremu geografikoek 2018-2020 aldian lehentasunezko arreta jasoko duten lurralteak markatzen dituzte, eta sailkapena sinplifikatu egin da lehentasunezko izaerako eta lehentasunez esku hartzeko herrialdeen bereizketa kenduz eta irakasteko edo ikasteko aukerak ematen dituzten geografien arteko bereizketa ere kenduz. Aldaketa hori 2014an zehaztu zen eskema hobetu behar zelako egin da, eta horrela Eusko Jaurlaritzako sailen eta bere sektore publikoaren parte hartza handiagoa izango den herrialde eta eskualdeetan hobeto kontzentratzea lortzen da.

1. Irudia: 2020rako BCEren eskemaren eguneratzea



4.2. Estrategiaren ikuspena

2014an zehaztu zen ikuspenak guztiz indarrean datorren aldirako, baina ñabardura berri bat gehitu zaio, gizarte kohesioaren faktorea, hain zuzen. Ildo horretan, Euskadien nazioartekotze ikuspenak datozen urteetarako bere identitatea, kultura eta balioak proiektatu nahi ditu kanpoan, bai eta giza garapen iraunkorreko maila handiak dituen elkarbizitza eredu bat lehentasuna ematen dion Herrialde irudia transmititu ere.

Halaber, Europako testuinguruan espazio berekia lortu nahi da, euskal interesak sustatzeko eta EBko erakundeekiko harremanak zabaltzeko. Hortaz, kanpo harremanen tresna ezinbestekoa bilakatu da Euskadi eragile global moduan kokatzeko eta munduan bere herritarren interesak aldezteko.

Azkenik, euskal nazioartekotze ekosistema osatzen duten eragile sozioekonomiko, kultural eta instituzional guztien arteko lankidetza publiko-pri batuari lehentasuna eman nahi zaio.

Ildo horretan, 2020rako BCEk ezartzen duen ikuspena hau da:

Euskadi eragile global moduan kokatu nahi da, Europaren proiektuaren eraikuntzan espazio berezia duela, Herrialde kohesionatu, erakargarri eta lehiakorra, bere bakantesunagatik, giza garapen iraunkorren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta atzerriko euskal komunitatearekin estu konektatua

4.3. Helburu estrategikoak

2020rako BCEk definitzen dituen Nazioartekotzeko helburu estrategikoek XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programaren konpromisoetan daukate oinarria. Epe berri honetan 2020rako BCEarekin zuzenean erlazioa daukaten helburu estrategikoak hauek dira:

- HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean
- HE2: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan
- HE3: Euskal euroeskualdearen lurralde-antolaketa indartu

Beste alde batetik, hamar helburu estrategiko gehiago gehitu egiten dira Euskadi nazioartekotzeko prozesua indartzen saiatzeko:

- HE4: Euskal komunitate globala sustatzea, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa
- HE5: Empresak nazioartekotzeko bultzada, “Basque Country” Estrategiaren aldetik
- HE6: Herriaren turismo-marka, Euskadi Basque Country
- HE7: Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu
- HE8: Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi
- HE9: Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu
- HE10: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin.
- HE11: Erreferentziazko azpiegituraren egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu
- HE12: Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiekzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez
- HE13: Lankidetza-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan

4.4. Nazioartekotzko bektore komunak

2020rako BCEk nazioartekotzko bost bektore komun ezartzen ditu, nazioarteko jardueraren asmoa finkatzen dutenak eta helburu estrategikoak lortzeko Eusko Jaurlaritzak eta beste eragile batzuek martxan jarriko dituzten kanporako jardueren multzoa garatzeko oinarria osatzen dutenak. 2014-2017 aldian 2020rako BCEk koherenzia eta ikusgaitasuna eman zion Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko ekintzari. 2018-2020 aldian jarraipena emango zaie indarrean dauden nazioartekotzko ekintzei, eta ekintza berriei ekingo zaie aukera iturri berriak identifikatu ahala.

Gizarteak oro har aurre egiten dien desafio globalen garrantziak, eta horiei erantzuna ematen saiatzen euskal gizarteak eta bere herri erakundeek duten borondateak, bektore¹ berri bat sartzea justifikatzen du Garapen Iraunkorreko 2030 Agendarekin eta maila globalean NBEk markatu dituen helburuekin bat etorrita. Euskaditik, Eusko Jaurlaritzak bere politika publikoak 2030 Agendako postulatuekin lerrokatzen duen konpromisoa nabarmendu nahi da. Era berean, 2014an zehaztutako bektoreetako biri izen berria eman zaie² 2018-2020 aldian beren zertarakoa hobeto islatzeko. Horrela, 1. bektorearen ardatza Euskadi Basque Country marka izango da, eta 4. bektoreari izen berria ematen zaio ikuspegi proaktiboagoa emateko.

4. Taula: Nazioartekotzko bektore komunak

| |
|---|
| 1. bektorea: Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea |
| 2. bektorea: Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea |
| 3. bektorea: Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea |
| 4. bektorea: Europaren proiektuari laguntzea |
| 5. bektorea: Ezagutza biltzea |

¹2014an zehaztutako "2. bektorea: interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei erantzuten laguntzea" bitan banatzetik sortu da.

²2014an zehaztutako "1. bektorea: Euskadi kanpoan proiektatzea" eta "3. bektorea: Europako esparruarekin lerrokatzea".

4.4.1. 1. *Bektorea: Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea*

Lurralde baten berezitasunetan oinarritutako marka baten irudia landu eta gero kanpoan zabaltzeak eragin egiten du proiektuak, profesional kualifikatuak edo turistak erakartzeko gaitasunean, bai eta testuinguru globalean eragina izateko posibilitateetan ere. Euskadiren irudia atzerrian bultzatzeko tresna denez, "Euskadi Basque Country" marka 2013an atera zen eta bai Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak bai beste eragile publiko eta pribatu batzuek ere ohiko bihurtu dute markaren erabilera. Datorren aldian, 2020 arte, eta bektore horren bitartez, ahaleginak marka finkatzena bideratuko dira, atzerrian lehiatzerakoan abantaila dakarren Herrialde marka bihurtzeko.

Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzeak Herrialde irudi erakargarri bat eta ezaugarri paregabeak dituena bultzatzea dauka oinarrian. Guztion marka, eta eduki bateratua duena, edozein euskal eragilerentzat berme izango dena nazioarteko jardueran. Erakunde maila gainditu behar du, eta euskal gizartearen ezaugarri eta Euskadik, besteak beste, kultura, enpresa eta gizarte arloan dituen aktibo nagusien ezaugarri diren balioak zabaltzeko tresna bilakatu behar da.

Euskadi atzerrian egongune lehiakorrean jartzen laguntzen duten lurralde marketineko ekintzak martxan jartzea balioetsiko da. Bai komunikabide digitaletan bai sare sozialetan zabalkunde sistematiko eta koordinatua egitea ere hausnartu beharko da. Halaber, marka osatzeko, irudi eta identitate bat eraikiko da, euskal gizartearena izango dena, Europan eta munduan Euskadiren berezitasunaren, bere kulturaren eta bere gizartearen berri emanaz aurkez gaitezen.

2018-2020 aldian marka gehiago lotuko da esfortzuaren kultura, konpromisoa, hobetzeko gaitasuna, aukera berdintasuna, gizarte zuzentasuna edo elkarbizitza bezalako baloreekin, besteak beste. Gainera, kanpoko euskal gizataldeekin eta diasporarekin eta euskaldunarekiko atxikimendua sentitzen duten pertsonekin eta diasporarekin loturak eta elkartasuna sendotzeak horien dinamismoa aprobetatzeko aukera emango du Euskadi Basque Country marka munduan proiektatze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren eremu guztiak, modu aktiboan lagunduko dute Euskadi kanpoan proiektatzen eta ondo kokatzen, nazioarteko eztabaidagune eta sareetan Euskadi Basque Country markari lotutako dohainak zabalduz. Halaber, euskal erakundeen atxikimendua zabaltzen joango da, bai eta eragileenak, nazioartean erabiltzeko eta zabaltzeko.

4.4.2. 2. *Bektorea: Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea*

Nazioartekotza Euskadiren berraktibazio ekonomikoa eta enplegua finkatzeko zutabeetako bat izatera heldu denez, Eusko Jaurlaritzaren kanpo jarduera eremu guzietan egongo da aukerak detektatzera, zubiak sortzera eta euskal ehun sozioekonomikoa osatzen duten eragileen ekoizpen, kultura, merkataritza edo turismo gaitasunak, besteak beste, nazioartean balioztatzen laguntzeko tresnak garatzera bideratuta.

2020rako BCE martxan jartzeak Euskadi abangoardiarekin eta nazioarteko erabakiguneekin konektatzen lagundi du, eta kanpoko euskal interes sektorialei mesede egin die. 2018-2020 aldian jarraitu egingo da Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren harremanetarako gaitasunak eusko gizartearen interesen zerbitzurako jartzen, zubi lana egiten, konplizitasunak sortzen, garapenerako lankidetzak, kanpoan eragiteko gaitasuna irabazten eta aukera berriak identifikatzen.

Alde bien intereseko aliantza, lankidetza eta proiektu bateratu berriak ezartzeko alde biko harremanak sakonduko dira. Nazioarteko sareetan parte hartza areagotzearren eta nazioarteko antolakundeekin, herrialdeekin eta estatu azpiko erakundeekin lotura sendoak bultzatzearen egingo da lan.

Halaber, noranzko biko bisitak, lankidetza hitzarmenak eta eztabaidagune sektorialetako parte hartzeen bitartez herrialde eta eskualde estrategikoetan eragile publiko eta pribatuekiko harremanak sustatuz, Euskadiren errealitatea proiektatu ahalko da, aukerak detektatu, eta nazioartekoteko euskal ekinbideei lagundi ahalko zaie.

Euskadi nazioarteko erreferentzia izatera heltzeko moduko bikaintasun maila lortu den eremuetan, gaitasun horiek atzerrira transferitzea erraztuko da, eta, horrekin, Euskadiren irudia azpimarratuko da ezagutzaren ekonomiaren aldeko apustua egiten duen gizarte aurreratua baita.

Gainera, nazioarteko antolakundeekiko elkarrekintzan sakontzeak eta alde anitzeko erakundeen bileretan egoteak euskal interesen defentsa hobea egiteari bidea zabalduko dio eta arlo askotan dituen aktibo diferentzialak ezagutarazteko modua ekarriko du, ezagutza berenganatzeko, ondasunak eta/edo zerbitzuak esportatzeko eta atzerrian proiektuak garatzeko aukerak sortzeko gaitasuna duten eragileak izango baitira.

4.4.3. 3. *Bektorea: Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea*

Bektore hau euskal gizarteak historian zehar erakutsi duen elkartasunari eta erronka globalak konpontzerakoan dagokion ardura hartzeari lotzen zaio.

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 17 Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) zehaztu ditu 2030ean garapen iraunkorreko esparru batean lortu beharreko berariazko xedetzat, eta Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak bereganatu egiten ditu helburuok eta horiek lortzearren lan egiteko konpromisoa hartzen du. Hortaz, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegiak integratuko dira bere politika publikoen diseinu, martxan jartze eta ebaluazioan eta politika horien arteko koordinazio eta osagarritasunean ere.

2030 Agendatik abiatuta erronka globalei erantzuten laguntzeak jokaleku globalaren desafioekin lerrokatutako etorkizun proiektu bat eraikitzeo aukera ematen dio Euskadiri, eta oraino eta geroko politikek gizartea, ingurumena eta ekonomia kontuan hartuko dituztela bermatzen duten tresnak erabiltzea ardatz izango duen garapen iraunkorra lortzeko Europako Batzordeak ezartzen dituen ikuspegi estrategikoei lotzea ere bada.

Lurralde dimentsioa sustatzeko konpromisoa hartza eta eskualde mailara egokitzea 2030 Agendaren ezaugarri differentzialetako bat da. Horregatik landuko da 2030 Euskadi Basque Country Agenda bat, eta bere aplikazioaren jarraipena egingo da, maila anitzeko gobernantzaren logika eta gobernu maila guztiak dituzten erantzukizun sarea zainduaz. Era berean, euskal agenda nazioartean zabaldu eta kokatuko da, horrekin estatuez beheragoko erakundeen zeregin aitortzeko erronka globalen kudeaketan.

Eusko Jaurlaritzak euskal herri erakunde guztiak inplikatu nahi ditu garapen iraunkorrerantz hasia duen bidean, eta politika publikoen koherentziarako tresnak erabiliko ditu gainera sektore pribatua, sektore akademikoa, gizarte zibil antolatua eta herritarrauk oro har inplika ditzaten ekinbideak garatzeko.

4.4.4. 4. *Bektorea: Europaren proiektuari laguntzea*

Europar Batasuna, bereziki gaur egun, euskal kanpo harremanen lehentasunezko gunea da. Datozen urteetan, Europaren proiektuak Europaren etorkizunari buruzko hausnarketa eta eztabaida aldi bati egingo dio aurre, erronka berri eta handiek bultzatuta: Erresuma Batua kanporatzeak, herritarrentzat aurrerakuntza ekonomiko eta sozialaren iturburu berriro izateko urgentziak, dozenaka mila pertsona iheslariei harrera egiteak, populismoen gorakadak edo erlijioa aitzakia hartzen duen nazioarteko terrorismoaren mehatxuak.

Hausnarketa giro honetan, Euskadik Europaren projektua eraikitzen eta zehazten parte hartzeak, bere intereseko eta eskumeneko gaiak erabakitzetan diren gune orotan, lehentasuneko jarduera bektore da nazioarteko agendan.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiren autogobernuari zuzenean eragiten dioten erabaki komunitarioak sortu eta hartzen diren eztabaideagune nagusietan presentzia irabaztea eta EBren etorkizunaz eta alde sozialaz egingo den eztabaidean laguntzea dute jomuga, erkidegoko erakundeetan, EBko Kontseiluaren osaeran partaidetza eraginkorra izateaz gain. Era berean, estaturik gabeko nazioen protagonismo handiagoa eta Europaren eraikuntzan, Euskadik izan behar duen zeregin proaktiboa eskatuko dira.

Europar Batasunaren barruan zehazten dira Euskadin aplikatu behar diren arau gehienak. Euskal eragile publiko eta pribatuen presentzia maximizatu egingo da EBtik bultzatutako europar sare, ekinbide eta programetan, Euskadi europar espazio komunean integratzea optimizatu ahal izateko eta Erkidegoaren baliabideak Herrialdera itzultzea ahalbidetzeko. Horretarako, bestek beste, ekonomia zirkularra, Horizonte 2020 programa, industria kulturalak eta sortzaileak edo klima aldaketa bezalako interes estrategikoko programa eta proiektuetan euskal presentzia indartu ahal izateko eskura dauden bide guztiak bultzatu beharko dira eta erabiltzen jarraitu. Euskadirako estrategikoak diren sektoreetan, hala nola, itsasandien energia, mugikortasun elektrikoa, industria 4.0 sektoreetan, inbertsioen arriskua gutxitzeko tresnak eta EIB taldearen inbertsio planen bidezko laguntza teknikoa erakartzea ere estrategikoa izango da.

Alde biko harremanak eta mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetza indartuko dira. Horrela gaitasun eta interes komunak Euskadiren eskualde homologoekin errazago integratuko dira, Europako espazioan eragina hobetzeko. Horri dagokionez, lehentasuna emango zaio Euskadi-Nafarroa-Akitania euroeskualdearen artikulazioa finkatu eta sendotzeari, mugaz gaindiko elkarlana indartzeari eta Euskadiren, Nafarroaren eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoaren artean lankidetza proiektuak bultzatzeari.

4.4.5. 5. Bektorea: Ezagutza biltzea

Bektore honek Euskadiri bere gaitasunak areagotzen lagunduko dion ezagutza gehitzera orientatuta dagoen nazioarteko jarduera oro biltzen du. Gizartearren ongizatea eta ezagutzan intentsiboa den ekonomia bereizezinak diren testuinguru batean, Eusko Jaurlaritzak bere politiken bitartez lagundi egin behar du beste lurralte batzuetatik hartutako esperientzia eta ezagutza hazkunde iraunkorra bihur daitezen, eta horrek aberastasuna hobeto

banatzeko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermaturik garatzeko eta euskal gizarteak bere osotasunean alxortzat duen talentuari eta sormenari eragiteko balio dezan.

Kanpotik etengabe ikastea eta ezagutza biltzea beste lurralte batzuetan sortutako know-how eta esperientziak sistematikoki jasotzen zentratuko dira. Horrela Euskadiren indargune eta ahulguneak abangoardian dauden beste lurralte batzuenekin kontrastatu ahal izango dira, eta horrek bide emango du Eusko Jaurlaritzak bere jarduera eremuko arlo gehienetan aplikagarriak izango diren jokabide on eta berritzaileetan oinarrituta esku hartzeko. Nazioarteko talentua atzitu eta erakartzearen alde apustu egiten jarraituko da, eta Euskadi puntako ezagutza azpiegiturak ezartzeko leku erakargarria izan dadin eta gazteriak bere esperantzen araberako garapen profesionala lortuko duen lekua izan dadin egoera egokia sortzen ere jarraituko da.

Egokia da Eusko Jaurlaritzak bektore honen esparruan egiten duen nazioarteko jardueraren zati bat erreferentzia eredu diren herrialde eta eskualdeekin alde biko harremanak bultzatzen bideratzea, ezagutza eta esperientziak trukatzeko nazioarteko abangoardiako proiektu eta ekinbide bateratuei ekin ahal izateko hitzarmenak egite aldera.

4.4.6. Nazioartekotzeko bektoreen jardueren emaitza helburu estrategikoak lortzeko

Bost bektoreen esparruan Eusko Jaurlaritzak 2020 arte garatuko dituen nazioartekotzeko jarduerek XI. legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programan jasotako nazioartekotzeko helburu estrategikoak lortzen laguntzen ari dira. Hurrengo taulak nazioartekotzeko bektoreen jarduerak helburu estrategikoetan egindako kontribuzioa aurkezten du:

5. Taula: Nazioartekotzeko bektoreen jardueren emaitza helburu estrategikoak lortzeko

| BEKTOREAK | NAZIOARTEKOTZEKO HELBURU ESTRATEGIKOAK |
|---|---|
| B1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiekatzea | <ul style="list-style-type: none">▪ HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean▪ HE4: Euskal komunitate globala sustatzea, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa▪ HE6: Herriaren turismo-marka, Euskadi Basque Country▪ HE8: Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi▪ HE11: Erreferentziazko azpiegituretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu.▪ HE12: Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiekzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez |

| | |
|--|--|
| B2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean ▪ HE2: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan ▪ HE5: Enpresak nazioartekotzeko bultzada, "Basque Country" Estrategiaren parte ▪ HE8: Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi ▪ HE9: Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu ▪ HE10: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin. |
| B3. Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntza | <ul style="list-style-type: none"> ▪ HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean ▪ HE2: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan ▪ HE8: Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi ▪ HE13: Lankidetza-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan |
| B4. Europaren proiektuari laguntza | <ul style="list-style-type: none"> ▪ HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean ▪ HE2: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan ▪ HE3: Euskal eurosualdearen lurralte-antolaketa indartu ▪ HE7: Nafarroa eta Akitaniarekiko interkonexioa hobetu ▪ HE8: Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi |
| B5. Ezagutza biltzea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ HE1: Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean ▪ HE2: Europako erakundeetan parte-hartze aktibo eta zuzena izan ▪ HE8: Gobernantza publikoan berritzalea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi ▪ HE9: Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu ▪ HE10: Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin. |

4.5. Arlokako jarduera eremuak

Jarduera eremu tematikoek Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotzeko jardueraren lehentasun sektorialak ezartzen dituzte. 2020rako BCEk 27 jarduera eremu tematiko jorratuko ditu legegintzaldi honetan.

4.5.1. Kanpo Harremanak

Kanpo harremanen eremuak nazioarteko proiekzioa duten Eusko Jaurlaritzaren ekintzak modu integratuan koordinatu eta bultzatzen ditu, eta gainerako erakundeekin batera

dihardu lankidetza efizientzia eta koherentzia printzipioen mendean, Euskadi eragile globala izan dadin eta munduan euskal interesak aldezteko.

Horretarako, 2020rako BCEren nazioartekotzeko bektoreek gidaturik, 27 eremu tematikoetan nazioarteko proiekzioa duten helburu estrategikoen, ekintza ildoen eta ekintzen aplikazio koordinatutik abiatuta, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia Euskadiren erakunde ordezkaria izango da, aliantza estrategiko egonkorra ezarriko ditu, Europako erakundeetan zuzenean parte hartzea bideratuko du, atzerriko euskal gizataldeekiko harremanak sakonduko ditu, Euskadiri munduan kohesioa eta lehiakortasuna irabazten lagunduko dion ezagutza gehituko du eta gobernu ekintza itunduko du 2030 Agenda Euskadin aplikatzerakoan.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak beste herrialde, eskualde edo nazioarteko erakunde batzuekin dituen alde biko/anitzeko harremanak bultzatu, garatu eta koordinatu egingo dira, eta, Euskadi Basque Country marka nazioarteratzen lagunzeaz batera, Learning Tours bezalako ekinbideak finkatuko dira. Euskadiren ordezkaritza sarean eta atzerriko bulego sektorialetan oinarrituta kanpo sare integratu bat erabiliko da, eta kide estrategikoekiko lankidetza zabalduko da (1. eta 2. bektoreak).

Ildo horretan, Euskadik lehentasunik handiena emango dio Europaren eraikuntzan zuzenean parte hartzeari, euskal gizarteak Europan dituen interesak aldezteko eta bere eragile publiko eta pribatuentzako aukerak detektatzeko. Euskal eragile publiko eta pribatuen presentzia Europako sare, ekinbide eta programetan ere bultzatuko da.

Erkidegoaren erabaki foroetan euskal partaidetza maximizatuko da, bereziki EBren Kontseiluan eta Batzordearen komitologian eta Eskualdeen Lantalean (4. bektorea). Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruko harremanei eta Euskal Hirigune Elkargoarekiko mugaz gaindiko elkarlan proiektuei lehentasuna emango zaie.

Era berean, Euskadik luzaroan jarri ditu praktikan Garapen Iraunkorreko Helburuek ezartzen dituzten xedeak lortzen laguntzen duten politikak. Testuinguru horretan, Garapen Iraunkorreko Helburuak aplikatzeko Euskadi Basque Country 2030 Agenda ekintza gune garrantzitsuetako bat izango da legegintzaldi honetan. Eusko Jaurlaritzak NBEren kontraste eta balioztapenaren mendean jarri nahi dituen ebaluazio mekanismoak eta konpromiso zehatzak jasotzen dituen euskal bide orriaren prestaketa koordinatuko da (3. bektorea).

Era berean, kanpoko euskal gizataldeekin eta Euskadirekiko hurbiltasuna sentitzen duten pertsonekin harremanak eta loturak sendotuko dira, eta horien dinamismoa aprobetxatuko da Euskadi munduan proiektatzeko (1. bektorea).

Azkenik, kanpo harremanen eremutik lan egingo da beste lurralte batzuetatik atzitutako esperientzia eta ezagutza, euskal gizartea altxortzat duen talentu eta sormenarekin batera, Euskadirako giza garapen iraunkor handiagoa bilakatu ahal izan dadin (5. bektorea).

4.5.2. Enpresak nazioartekotzea

XI. Legegintzaldiko Gobernu Planean Jaurlaritzak bere konpromisoa berritzen du euskal enpresak nazioartekotzeari bultzada emateko, 2020rako BCEren osagai bat denez. Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Plana garatuko da, Enpresak Nazioartekotzeko Euskal Agentzia sortu eta bultzatuko da eta garrantzirik handiena emango zaio Euskadi Basque Country marka ezagutarazteari, euskal enpresek egongune hobea izan dezaten atzerrian. Invest in Basque Country estrategia indartuko da atzerriko enpresak erakartzeko eta Euskadirekiko loturak sortzeko tresna moduan. Era berean, SPRIren atzerriko sarea finkatuko da, lehentasuneko herrialdeetan zabaltzen jarraituaz (1. eta 2. bektoreak).

Euskal enpresa nazioartekotzeko prozesuari laguntzen jarraituko da "Global Lehian", "Gauzatu", "Interlehian" eta "Elkartzen" bezalako programen bitartez. "Basque Country" Lehiaketa Plataforma ere sorraraziko da, eta enpresen esportazio jarduerrei laguntzeko programak indartuko dira (2. bektorea).

Euskal enpresek nazioarteko jardueran 2030 Agenda globala eta beste herrialdeetako 2030 Agendak eurak ere bete ditzaten ahaleginak egingo dira. Berariaz, euskal ehunak nazioarteko eta eskualdeetako antolakundeen ekinbide eta lehiaketetan neurri handiagoan parte hartu ahal izateko moduak esploratuko dira, GIH lortzeari mesede egingo dioten proiektu eta ekintzetarako badira (3. bektorea).

Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruan, cluster arteko harremanak bultzatuko dira, eta lan egingo da Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriaren arteko enpresa lankidetzarako ekosistema bat sortzeko, manufaktura aurreratuaren, energiaren, bio-osasunaren eta nekazaritzako elikagai industriaren esparruetako Espezializazio Adimentsuko Estrategietan oinarrituta. Mugaz gaindiko lankidetza espazioak ere bultzatuko dira, mugaz gaindiko lankidetzaren mesedetarako izan daitezkeen politikak, tresnak eta eragileak identifikatzeko (4. bektorea).

Azkenik, Adimen Lehiakorreko Unitate bat sortzeak nazioartekotzeko aukerak aprobetxatu, ebaluatu eta aztertzeko modua emango du. Nazioarteko giza kapitalaren prestakuntza eta gaikuntza ere finkatuko da Nazioartekotzeko Bekak eta Global Training Bekak ematen jarraituaz (5. bektorea).

4.5.3. Kultura

Euskal Kultura giltzarria da Euskadi Basque Country markaren garapenean. Euskal kultura Euskadiren bereizgarri modura azalduko Estrategiaren gainerako ekintza eremuen aurkezpen gutunean. Era berean, enpresa sortzaileei nazioartekotzen laguntzeko ahaleginak biderkatu egingo dira, eta, ahaleginean, arlo honetan Euskadiren irudia abangoardiako lurralte bezala proiektatuko da atzerrian. Bestalde, erreferentzia diren proiektuak bultzatzen jarraituko da, hala nola, Guggenheim Bilbao Museoa, Donostiako Zinemaldia, Artium edo Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (1. bektorea).

Legegintzaldi honetan Etxepare Institutuak garrantzi berezia hartu du euskal kultura nazioartekotzko prozesuan. Euskadiren diplomazia kulturaleko tresna bezala duen rola bultzatu eta finkatuko da, arlo honekin zerikusia duten eragileen nazioartekotzea bizkortze aldera. Euskal kulturaren eragileak eta industriak nazioarteko azoka, foro eta sareetan parte hartzen jarraituko dute, euskal ekoizpenei ikusgaitasun handiagoa ematearren eta ezagutaraztearen. Halaber, lan egingo da euskal artisten komunitateko Euskadi Basque Country markaren enbaxadore sare bat identifikatu eta antolatzeko (1., 2. eta 5. bektoreak).

Kultura Nazioartekotzko 2018-2020 Plana garatuko da, egin beharreko ekintzen gidalerroak eta sistematizazioa osatzeko. Nazioarteko oihartzuna duten kultura ekitaldiak sustatzeko diru-lagunza ere handituko da, faktore erakarleak izaten baitira. Diseinua, gastronomia eta bideo jokoak sortzeko industriak berariaz bultzatuko dira, dagoeneko Europako “Europa Sortzailea 2014-2020 Plan Estrategikoa” proiektuaren esparruan eginda dagoen lanetik abiatuta (2. bektorea).

Unescoren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearekin izenpetutako Aditze Memoranduma abiapuntutzat harturik, Nazio Batuetako organismoekin kultura programa bateratuak egitea bultzatuko du. Era berean, Europako herrialdeetan erreferentiak bilatzen jarraituko du, kultura kudeaketaren arloan Euskadirako onak diren jokabideak ikasteko (5. bektorea).

4.5.4. Turismoa

XI. legegintzaldirako helburu nagusia arlo honetan, Euskal Turismo Sistemaren ikuspena garatzea da, Euskadi Basque Country estrategiak lortu nahi dituen helburu orokorrekin bat baitator. Turismoaren arloan goiburu honetan islatzen da: modu iraunkorrean haztea, bikaintasunezko eta espezializatutako helmuga gisa finkatzeko, Europaren erreferentzia izanik.

Horizonte 2020 programarekin euskal turismoa garatzeko helburuak Gida planaren ildo estrategikoetan agertzen dira, eta, 2020rako BCErekin bat eginez, Euskadiren gobernantza turistikoa kultura eta tradizioak mantentzen saiatuko dela ezartzen du. Gainera, turismoaren eragin zuzena eta ekonomia guztian duen eragina euskal gizartean ongizatea sortzeko izan dadin ahaleginak egingo dira. Halaber, Euskadiko turismoa, bere garapenean, gizartearekiko eta ingurumenarekiko iraunkorra izango da, bere bilakaera herritarren bizi kalitatea babestearekin eta aberastasuna sortzen jarraitzeko gaitasunarekin elkargarria izango dela ziurtatzeko (1. bektorea).

Euskadik marketin plan berritzairel eta eraginkor bat garatuko du eta Euskadi helmuga turistiko moduan harraraztea izango du oinarri. Hori guztia, euskal enpresen prestakuntza eta lehiakortasun baldintzak, giza kapitalaren prestakuntza egokia eta azpiegitura bikainen ekarpema sustatu eta hobetuz, eta, lagungarri gisa, eskarirako baldintza positiboekin eta Administrazioak ematen dituen erraztasunekin.

Jarioak Iurrealde guztian banatzen lagunduko duen plangintza turistiko oso batekin eta turismoaren erronka berriak kudeatzeko Euskadiren Kudeaketa eta Gobernantza eredu berri batekin, garrantzi ekonomiko, sozial eta politiko handia baitute (2. bektorea).

Euskal turismoak 2017-2020 Turismo Plan Estrategikoaren barruan Euskadi "boutique" helmuga bihurtzea eta Europako "premium" helmugen top 20an kokatzea jarri ditu helburu. Estrategiak erakundeek bultzaturiko jarduera turistiko bat finkatuko du, izaera publiko-pribatua izango duten ekintzakin, Euskadi bisitatzen dutenei balio handia emango dieten ekintzakin, aldi berean turismoari lotutako Euskadi Basque Country marka bat garatuaz (1. bektorea).

4.5.5. Garapenerako lankidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA) izango da, euskal lankidetza politika, munduan pobrezia eta aukera falta jasaten duten pertsona guziekin euskal gizartea duen konpromisoaren adierazpide gisa finkatzea bermatuko duena.

Legegintzaldi honetarako erronka euskal lankidetza eredua eguneratzea da, GLEAREN ahalmenak horretarako sendotuaz eta euskal lankidetzatik balioztatuenak izan diren ildoei etengabe hobeturik jarraipena emanet. 2018-2021 Garapenerako Lankidetzako IV. Gidaplana garatuko da Garapen Iraunkorreko 2030 Agendaren ildoan, eta erreforma estrategikoaren zenbait ildo gehituko zaizkio (2. eta 3. bektoreak).

Aurrekontuen gaineko konpromiso politikoa berrituko da eta garapenerako politiken koherentzia zabaltzea bultzatuko da Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bere politika publikoetan. Lankidetza tradiziozkoak ez diren eragileen presentzia eta horiekiko uztardurak eta itunak sendotzeko ekinbideak proposatuko dira (sozialak, akademikoak, enpresenak eta erakundeenak), jarduera esparru berriak esploratuko dira, proiektuen bidez ez ezik, bereziki esparru estrategikoan arabera eta Eusko Jaurlaritzaren beraren ekimenez garatu beharreko lehentasunak zehaztuko dira (2. bektorea).

Europako eta nazioarteko organismoekin harremanak eta ekintzak areagotuko dira, bereziki Europar Batasuna tokiko eta eskualdeko agintariantzat irekitzen ari den lankidetza politikaren esparruan, eta hirien eta eskualdeen Europako aliantzetan aktiboki hartuko da parte (4. bektorea).

4.5.6. Kirola

Kirola gizarte aurreratu baten agerraldi nagusietako bat da. Euskal kirolak Euskadiren eta bere kulturaren irudi positiboa nazioarteko esparruan proiektatzen laguntzen du. Kirola bere balio tradizionalen defentsatik bultzatuko da: berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna eta bortizkeriarik eza. Nazioarteko ekitaldietan parte hartzen duten kirolariei ematen zaien lagunza handitu egingo da, eta horrela Euskadi Basque Country markaren enbaxadore ere bihurtu ahal izango dira, kirolari atxikitzen zaizkion balioak transmitituz (1. bektorea).

Jarduera turistikoa mugiarazten eta ingurunean aberastasuna sortzen duten nazioarteko kirol ekitaldiak antolatzearren aldeko apustua egingo da, foru aldundiekin eta udalekin erakunde arteko lankidetzan. Horri dagokionez, lan egingo da txirrindularitza profesionaleko talde berri bat sortzeko, Euskadiren irudia proiektua dezan. Bestalde, errugbiko Champions txapelketako Finala eta San Mameseko Eurokopa kirol ekitaldiek aukera paregabea eskainiko dute euskal balioak eta berezitasuna proiektatzeko (1. bektorea).

4.5.7. Gobernu irekia

Gobernu irekiaren arloak gobernantza publikoan Euskadi Europako eskualde berritzaille moduan finkatzen lagunduko du, zerbitzu publikoak sortu eta hobetzen eta gardentasuna areagotzen herritarren lankidetza sustatuko duten ekintzak garatuz (1. bektorea).

Herri administrazio berritzaille, ireki eta parte-hartziale bat eraikitzen bideratuta dagoen 2020rako Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa onartzea lehentasuna da.

Halaber, nazioarteko Open Government eztabaiguneetan modu aktiboan hartuko da parte (2. bektorea).

Herritarrek Jaurlaritzaren politiketan parte har dezaketela ziurtatuko da, formatu berrerabilgarrian irekitako datuen bidez gardentasuna bermatzeko helburuz, Euskadiren kasuan Open Data Euskadin daudenak. Halaber, kanpora irekita egoteko politika baten esparruan, IKTak funtsekoak dira sareak sortzeko gai den eta herritarren eskariak entzun, artatu eta partekatzeko gai den herri-administrazio eredu bat sustatzeko. Konkretuki, "Open Data" datu irekien plan operatiboa landuz, gobernu irekiak GIHeten duen zereginari garrantzia emango zaio (3. bektorea).

Nazioarteko herri erakundeekin eta gobernu kanpoko erakundeekin lankidetza jardungo da gardentasun arloan jokaera onak identifikatzeko (5. bektorea).

4.5.8. Elkarbizitza eta giza eskubideak

Mundu globalizatu batean, giza eskubideek ere mehatxu globalak dituzten mundu honetan, Eusko Jaurlaritza bezalako gobernu baten jarduera, apaltasun osoz, baina adore guziaz, giza eskubideen eta pluraltasunaren errespetuan oinarritutako bake kultura eta elkarbizitza aldezteko indarrak batzen saiatu behar da nazioartean. Gainera, Eusko Jaurlaritza prest egongo da nazioarteko erakundeekin lankidetza espazioetan parte hartzeko eta giza eskubideen, gatazka konponketaren, biktimen eta bakearen inguruan edo bereizkeriaren, arrazismoaren, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurka sortzen diren nazioarteko programetan partaide izateko (2. bektorea).

Elkarbizitza eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planak estrategikotzat jotzen du bakea, elkarbizitza, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak aldeztearen alde nazioartean egiten diren esforzuetan partaide izatea, bai eta horien sinergia sustatuz Euskadi Basque Country marka bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoarekin elkartzea, nazioartean euskal elkarbizitza-politika eredua zabaldurik. Halaber, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen 2017-2020 Plana argi eta garbi lerrokatuta dago hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaile bat lortzeko Europaren estrategiarekin, Europa 2020 eta 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuekin, orokorrean, eta bereziki gizarte baketsu eta inklusiozkoak sustatu nahi dituen 16. helburuan ezarritakoarekin (3. eta 4. bektoreak).

Nazioarteko erakundeen lankide izatearen alde egingo da; besteark beste, nabarmentzekoak dira Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren bulegoarekin dagoen lankidetza-harremana eta EBren Peace Programme programari lotutako erakundeekiko lankidetzari jarraipena ematearen garrantzia (3. bektorea).

Nazioarteko programetan parte hartzen jarraituko da; besteak beste, aipamena merezi dute Giza Eskubideen Defentsari Programak aurrera jarraitzeak eta arriskuan dauden EBko giza eskubideen defentsariak aldi baterako birkokatzeko plataforma globalean egoteak. Halaber, Euskal Herriaren kasutik ateratako esperientziez oinarrizko dokumentu bat landuko da, behar izanez gero beste testuinguru batzuetan kontrastatzeko. Jarduera ardatz hau indarkeria giroan eta gatazka suntsitzaleetan murgilduta dauden herrialdekin nazioarteko elkarlanerako bide modura pentsatu da (3. bektorea).

Azkenik, eta Europaren mugetan babesu aurkitu nahian dabilzan pertsonen krisi humanitarioari erantzunaz, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko ekintzarekin zerikusia duten ekinbideak garatzen jarraituko du ekintza humanitarioaren, prebentziozko ekintzaren eta Europako eta nazioarteko zenbait gunetan kokatu eta eragitearen arloan.

4.5.9. Berdintasuna

Legegintzaldi honetarako Euskadi berdintasunean lehenengo 4retako bat izatea du helburu Eusko Jaurlaritzak. Horren inguruan, Euskadi berdintasun politiketan abangoardian dagoela ikusgai egiteko, Euskadi Basque Country markari zerbait eranstea landuko dugu (1. bektorea).

Euskadin emakumeen ekimenez egiten diren nazioarteko enpresa proiektuak ugaltzera orientaturiko politika publikoko tresnak indartuko dira (2. bektorea).

Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren berdintasun politika publikoak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzera bideratuta daude, eta, bereziki, emakumeen ahalduntzea sustatzera, genero indarkeria ezabatzera, lan eta soldatu berdintasuna bermatzera eta bizitza pertsonala, lanekoa eta etxekoa uztartzea eta horietako ardurak banatzea errazteria. Horri dagokionez, Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundeak), Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailen implikazio aktiboarekin batera, hain zuzen, Hezkuntza, Enplegua eta Gizarte Politikak, Ekonomia Garapen eta Azpiegiturak, besteak beste, NBEren Garapen Iraunkorreko 2030 Agendako "5. helburua. Genero berdintasuna" etorkizuneko Garapen Iraunkorreko Euskal 2030 Agendan sartzeko konpromisoa hartu dute legegintzaldi honetan (3. bektorea).

Europar Batasunaren barruan, Euro Gender Sarean eta Genero Berdintasunaren Europako Institutuak bultzatutako gainerako lankidetza eta truke guneetan modu aktiboan parte hartzen jarraituko da (4. bektorea). Era berean Europako funtsen eragiketa programetan parte hartzen jarraitzea dago aurreikusita. Europatik kanpora ere NBE-Emakumeekin, UNFPArekin eta Iberoamerikar Idazkaritza Orokorra edo UNESCO bezalako beste organismo batzuekin lankidetza jarduera sakona egiteari eutsiko zaio. NBE-Emakumeekin eta

UNFPAren lankidetza jarraitzeari dagokionez, Joint Global Programme on Essential Services for Women and Girls Subject to Violence nazioarteko programan euskal jarduera areagotuko da; indarkeriaren biktima diren emakume eta nesken arretarako gutxieneko estandarrak zeintzuek izan behar duten munduko adostasun batera heltzea da programa horren helburua.

Emakunderen aitzindaritzapean, nazioarteko lankidetza ekintza sistematiko bat bultzatzen jarraituko da, zenbait herrialde eta nazioarteko organismorekin lankidetza berriak bilatu eta hitzarmenak ezartzeko eta daudenak sendotzeko. Lankidetza hauetan, Euskaditik arlo honetan sortzen diren jokabide onak kanpora proiektatzea bilatuko da, eta ezagutza berria erakartzea, orain arte garatutako berdintasun politiken esparrua indartu eta osatu ahal izateko (5. bektorea). Ezagutza ekartzeari zuzenean dagokionez, Europaren iparraldeko herrialdeekin hitzarmenak lortzea estrategikotzat jotzen da, eta, zehazki, Nordic Equality partzuergoarekin lankidetza esparru egonkor bat ezartzea.

4.5.10. Gobernantza publikoa

Euskadik gobernantza publikoaren arloan Europako lurralte berritzale gisa esperientzia izateari esker, potentzial handia dago gardentasuna, kudeaketa publikoa, araugintza kalitatea, demokrazia parte-hartzalea edo maila anitzeko gobernantza bezalako faktoreak marka proiekzioaren eta jokabide onak eta ezagutza trukatzearen elementu bilaka daitezen (1. bektorea eta 5. bektorea).

Nazioarteko eztabaidaguneetan parte hartzea bultzatuko da eraldaketa digitalaren Euskal Estrategia erakusteko, eta Euskadiri arlo honetan erreferentzia posizioa emateko. Marka araugintza kalitatearen eta maila anitzeko gobernantzaren zertzeladei lotzeko jardungo da. Halaber, Regional Governance Matters: Quality of Government Index rankingean Euskadik duen posizioa hobetzen bideratutako ekinbideak garatuko dira (1. bektorea).

Euskal Administrazio Publikoak bere Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikora (2017-2020) egokituko du harreman digitalaren esparrua, bere sistema guztiak doituz, elkarri konektaturik egon daitezen eta prozedura, izapide edo expedientearen bizaldi osoan modu digitalean monitorizatzeko gai izan daitezen, horien babes eta aldaezintasuna bermatuta. Eusko Jaurlaritzak lanean jarraituko du administrazio prozedurak digitalizatzen, 'Tramitagune' izapidetzeko tresnaren eta 'Platea' plataforma teknologikoaren bitartez. Administrazio integratuaren eredu bat garatuko da ETEak kanpora irteten direnean izapideak errazteko eta laguntzak emateko (2. bektorea).

Euskal Administrazio Publikoak sortutako informazioa askatasunez atzitu ahal izatea bultzatzen jarraituko da, gobernuaren eta gizartearen artean konfiantzazko giroa sortzeko eta, horrela, herritar arduratsu eta parte-hartzailea formatzeko. Gobernantza publikoko mekanismoak bultzatuko dira gizartea hobeto informatuta eta politika publikoan implikatuago egon dadin (3. bektorea).

Halaber, Europar Batasuna eraikitzeko prozesuari lagunduko zaio bereziki Eskualdeen Lantaluean parte hartuaz, eskualdeek parte hartzeko Europako Batzordeak edo Europar Kontseiluak gaitutako bideetan ekarpenak eginez eta subsidiariotasun printzipioa aplikatzen lagunduz. Halaber, administrazio elektronikoa bultzatuko da, EBko Kontseiluaren lehendakaritza Estoniak zeukanean 2017ko urriaren 6an egin zen Tallinngoko Deklarazioan administrazio elektronikoaz jasotako baldintzak atxikiaz, Europarekin komunikabide berriak ezartzeko aukera baita (4. bektorea).

Ezagutza biltzeari dagokionez, euskal gobernantza publikoarekin zerikusia duten arloetan jokabide onak sartze aldera eremu honetan erreferentzia diren lurralte interesgarriekiko harremanak sendotuko dira: demokrazia parte-hartzailea, meritokrazia, gardentasuna edo arauigkeitza kalitatea (5. bektorea).

4.5.11. Zientzia, teknologia eta berrikuntza

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren arloan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP 2020) aplikatuta Euskadiren posizioa indartu egingo da Europako eskuadre berritzale gisa. Fabrikazio aurreratuan, energian eta biozientzia-osasun sektoreko ikerketa proiektuetan aitzindaritzan jarri nahi da Euskadi (1. eta 2. bektoreak).

RIS 3 Euskadi Espezializazio Adimentsuko Estrategiak I+G+b inbertsio publiko-pribatua pizgarriz hornitzen jarraituko du. Ildo horretan, 2021etik aurrera Europaren hurrengo programazio aldian garatuko den I+G+b politiken planteamendu berriari buruz eztabaidatzet duten Europako eztabaidaguneetan hartuko da parte. Vanguard ekinbidea osatzen duten eskualdeekin lankidetzen jarraituko da Ekinbidearen barruan, RIS3 estrategian lehentasuna ezarri zaien eremuetan Euskadirako interesgarriak diren proiektuetan (2. eta 4. bektoreak).

Biztanleria kontuan hartuta ikerketan eta garapenean pertsona kopuru handiagoa aritzea helburu jarri da, eta ikerketan eta garapenean inbertsio pribatuaren mailak handitzera bideratutako ekintzak egin ahal izango dira (3. bektorea).

Zibersegurtasun industrialaren eta azpiegituren arloan nazioarteko aukerak identifikatzeko plataforma bat garatuko da, aukera horiek euskal ehun espezializatura bideratu ahal izateko (2. bektorea).

Europako eztabaidagune eta konferentzia interesgarrietan parte hartzen jarraituko da, hala nola Enterprise Europe Network (EEN) sarean, eta garraio adimentsu, ekologiko eta integratuarekin zerikusi berezia duten arloetan Horizon 2020 programa aplikatzeko lantalueetan parte hartzea areagotu egingo da (4. eta 5. bektoreak).

4.5.12. Energia

Energiaren eremuan Euskadiren irudia itsasaldien teknologietan erreferentzia bihurtzeko oinariak jarriko dira, eta Armintzako Itsas Energiazko Saioen Arloa (BIMEP) sendotuko da itsas energien garapen teknologiko eta industrialaren aldeko apustuan proiektu estrategikoa delako. Itsas Energien Ardatz Atlantikoaren lehendakaritza eta koordinazioa, eta 2019an Wind Europe azoka Euskadin egitea lagungarriak izango dira Euskadi energiaren arloan erreferentzia bihurtzeko. Halaber, Euskadiren Energia Iraunkortasunaren Legea onartzeak euskal administrazioa aurrezkiak, efizientzia, berritzagarriak eta mugikortasun iraunkorra bultzatzeko neurrien arloan erreferentzia eta bultzagile bilakatzea ekarriko du (1. bektorea).

Euskal enpresak nazioartekotzea bultzatuko da Euskal Energia Erakundearen (EVE) eta Euskadiko Energia Clusterraren arteko lankidetzatik sortzen diren ekinbide berriak gauzatuz, batez ere Europaren eremuan (2. bektorea).

Euskadi 2030 Energia Estrategia Europaren helburuen ildotik garatuko da. Halaber, lankidetza estua mantenduko da Europako beste eskualde batzuekin proiektuak aurkezteko eta proiektu bateratuak garatzeko (2. bektorea eta 4. bektorea). Energia berritzagarriak erabiltearen eta efizientzia energetikoa sustatzeko ekintzak garatzearen aldeko apustuari esker, Euskadik 2015eko abenduan Parisko Gailurrean hartu ziren konpromisoen aurrean kokalekua aurkituko du. Nazioarteko lankidetza areagotzen bideratutako ekintzak egingo dira iristen errazagoak izan daitezen energia garbiaren inguruko ikerketa eta teknologiak, iturri berritzagarienak barne, efizientzia energetikoaren ingurukoak eta erregai fosilen teknologia aurreratuak eta gutxiago kutsatzen dutenak, eta azpiegitura energetikoetan eta teknologia garbietan inbertsioa bultzatzeko (3. bektorea eta 5. bektorea).

4.5.13. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura

Nekazaritza, arrantza eta elikadura arloak elikagaien sektore errentagarri, berritzale eta lehiakor bat garatu nahi du balio kate guztian, lehen sektoretik hasi, eraldaketa eta elikagai industriatik pasatu, eta gastronomiaraino.

Gastronomia eta Elikagai Plan bat abiaraziko da Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektore osoa produktuen eta gastronomiaren berrikuntzan eta kalitatean oinarritutako erreferentzia bihurtzeko. Halaber, Euskal Elikagaia Atzerrian Merkaturatu, Zabaldu eta Sentsibilizatzeko Estrategia Oso bat garatu gura da. Bestalde, nekazaritza eta elikadura ikerketaren arloan erreferentzia bihurtu diren ikerketa zentroak ditu gaur egun Euskadik. Bere irudia bultzatzera eta atzerrian proiektuak abiarazteria bideratutako ekintzak garatuko dira (1. bektorea).

Aukerak eta finantzaketa bilatzeko nazioarteko prospekzio bidaia eta misioak antolatzen jarraituko da, euskal industriaren interesak bultzatu ahal izateko, bai eta garapen iraunkorraren ikuspegia duten nekazaritzako elikagaien politika publikoetan erreferentziak bilatzeko bidaia eta misioak ere (2. bektorea eta 5. bektorea).

Alde biko harremanen esparruan Mexiko eta Txilerekin dauden harremanak bultzatuko dira. Indiarekin ere lankidetza hasiko da, euskal enpresen proiektuak garatzeko eta euskal produktuak merkaturatzeko herrialde horretan (2. bektorea).

Nekazaritza ekologikoa Euskadiren nekazaritza garapen iraunkorreko estrategiaren zati bat da. Ingurumenerako gai toxikorik erabiliko ez duen, ekoizleen eta kontsumitzaileen artean ekitatezko harremanak ezarriko dituen eta elikadura osasungarri baterako lehengaiak erabiltzea bultzatuko duen nekazaritza eta abeltzaintza sistema bat sustatzen bideratutako ekintzak bultzatuko dira. Klima aldaketa moteltzen laguntzeko aukera ona dela irizten zaio, gainera. Horri dagokionez, Nekazaritza Ekologikoaren Sustapenerako Plana (FOPE) bultzatzen jarraituko da, nekazaritza ekologikoari laguntzeko politika osoa delako. Era berean, Euskadiko 2017-2020 Gastronomia eta Elikagai Plan Estrategikoak, legegintzaldi honetarako apustu estrategikoa denez, osasuna, segurtasuna, berezitasuna eta iraunkortasuna izango ditu ardatz (3. bektorea).

Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen esparruan garatu den lankidetzaren helburua hiru eskualdeetako nekazaritzako elikagai enpresen arteko lankidetza harreman egonkorra garatzea izango da, bai eraldaketaren ikuspegitik bai atzerrian batera merkaturatzearen ikuspegitik. Bestalde, Europako sareetan aktiboki hartuko da parte, hala nola EUROMONTANA Mendialdeko eremuetako Europako elkartean, AREPO Jatorrizko

produktuen Europako eskualdeen elkargoan, EFI European Forest Institute basogintza institutuan eta USSE Unión de Selvicultores del Sur de Europa basoginen batasunean, basogintzaren esparruan, eta ofizialki eratu berri den REGAL berrikuntza eta ekintzailezagatik elikaduran eta gastronomian aitzindari diren Europako eskualdeen sarea (4. bektorea).

LIFE, H2020, POCTEFA, SUDOE, M16, FOCAD inguruan eraikitako Europako proiektuek bide emango dute ezagutza atxitzeko eta aurrera egiteko lankidetzazko jardunetan Europako kideekin, nekazaritzako elikagai sektorean eta landa eta kosta ingurunearen garapenean berrikuntzaren eta elkarlanaren eremuan (4. eta 5. bektoreak).

4.5.14. Azpiegiturak eta garraioak

Euskadi katebegi erabakigarria da Europaren korridore atlantikoan eta egongune estrategikoa dauka garraioaren eta komunikazioen lehentasunezko Europaz gaindiko sareetan, penintsula iberikoaren eta erdialdeko Europaren arteko loturan eta harremanetan giltzadura nagusia baita. Gainera, mugikortasun iraunkorraren arloan erreferentzia bat da eta Euskadi Basque Country marka eremu honetan posizio egokian jartzeko ekintzak garatuko dira (1. bektorea).

Garraioari dagokionez, sektoreko euskal enpresei parte hartzen duten nazioarteko proiektuetan laguntasuna eta babesa ematen jarraituko da. Era berean, Euskadik zuzenean hartuko du parte nazioarteko zabalerako burdinbide sare berriaren proiektuan eta eraikuntzan, oraindik dagoen "burdinbide muga" gainditzeko balioko baitu (2. bektorea).

Euskadiko Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplan onartu berria abiaraziko da; honen helburua garraio sistema sozialki, ekonomikoki eta ingurumenaren eta kalitatearen ikuspegietatik iraunkorra finkatzea da, gizarte kohesioari eta garapen sozioekonomikoari lagunduko diona, eta gizartearen mugikortasun beharrei erantzuna emango diena. Ildo horretatik, pertsona guztiak garraio sistema seguru, merke, irisgarri eta iraunkorrapak izan ahal izatea ahalbidetzen eta bide segurtasuna hobetzen duten ekinbideak bultzatuko dira, bereziki garraio publikoa hedatz, egoera ahulean dauden pertsonen, emakumeen, umeen, desgaitasun funtzionala duten pertsonen eta adinekoen beharrei arreta berezia emanez (3. bektorea).

Martxan jarri beharreko politikak eta tresnak Europaren jarraibideen ildotik joango dira, eta Euskadiren egongunea indartuko da penintsula iberikoaren eta Europaren artean Ardatz Atlantikoaren giltzadura nagusi bezala, euskal "Y"a eraikitzen amaitu ondoren. Arlo honetan nazioarteko sare eta proiektuetan parte hartzeak interes bereziko elementu bat izaten jarraituko du, bereziki Akitania-Nafarroa-Euskadi euroeskualdearen barruan, beren-beregi

euroeskualdearen barruan zerbitzu eskaintza optimizatzen eta loturak hobetzen dituzten mugaz gaindiko Europako mugikortasun proiektuak hezurmamitzeko (4. bektorea).

4.5.15. Enplegua

Enplegua Eusko Jaurlaritza osoaren jarduera politikoaren oinarrizko ardatza da XI. legegintzaldi honetan. Ildo horretatik, Euskadi erreferentzia izango da beste herrialdeentzat nazioartean eta "Euskal Enplegu Zentro Bereziak" eredua nazioartekotzearen alde egingo da (1. bektorea).

XI. legegintzaldian langabezia tasak % 10en azpitik jaistea jarri da erronka. Horretarako, enplegu gehiago eta kalitate hobekoa sortzea zuzeneko helburua duten politika publiko ekonomiko eta sozialak sustatuko dira. Bestalde, unibertsitateko titulua duten gazteak nazioartekotze arloan prestatzea sustatzen duten programak bultzatuko dira, euskal enpresek eta bestelako euskal erakundeek ekonomia irekiaren erronkak eraginkortasunez artatzea ahalbidetuko dieten profesionalen oinarri sendo bat izan dezaten etorkizunean (2. bektorea).

Enplegu eta berraktibazio politika publikoa elkarrizketa sozialak lagunduta eta bultzatuta egongo da, eta eragile ekonomiko eta sozialen artean etengabeko negoziazio esparru bat finkatuko da, eta Lan Harremanen Euskal Sistema indartuko. Enplegurako prestakuntza, tresna nagusietako bat izango da kalitatezko enplegua sustatu eta bermatzeko, eta, aldi berean, enpresak teknologiaren eta antolakuntzaren erronka berrietara egokitzeko funtsezko tresna (3. bektorea).

Enpleguari lotutako Europako programa eta ekinbideetan parte hartzea eta sareetako presentzia areagotzera bideratutako jarduerak garatuko dira (4. bektorea).

Arlo honetan nazioartekotzea enplegu zerbitzu publikoen eta lan harremanen ereduei buruzko ezagutza eta jokabide onak ikastera ere guztiz bideratuta egongo da (5. bektorea).

4.5.16. Politika sozialak

Gizarte zerbitzuen euskal eredua bultzatuko da erreferentzia gisa. Euskadik gizarte inklusioko eta diru sarrerak bermatzeko errenta sistema bat dauka, eta gutxieneko diru sarrerak edukitzeko eta gizarteratzeko eskubide subjektibo bikoitza aitortzen du. Euskal esperientzia gizarte ekonomia eta berrikuntzan eta kooperativismoan potentzial handiko aktibo bat da atzerrira transferitzeko. Halaber, desgaitasun funtzionala duten pertsonak babesteko politikak edo gurasotasun positiboko politikak erreferentzia dira atzerrian (1. bektorea).

Arau eta lege esparru berriak bideratu eta garatuko dira, berrikuntza sustatzen duten eta gizarte berrikuntzako ekinbideak onartzen dituzten inguruneak bultzatzeko. Testuinguru horretan gizarte eraldaketarako euskal berrikuntza estrategia bat garatzea hausnartuko da. Era berean, enpresaburuen gizarte erantzukizuna sustatzen bideratutako politikak bultzatuko dira (2. bektorea eta 3. bektorea).

Halaber, jarraipena emango zaio gizarte politikei lotutako Europako programa eta ekinbideetan parte hartzeari. Gizarte zibilean parte hartea ahalbidetzen duten erakundeetan parte hartuko da, hala nola Elkarrizketa Sozialeko Mahaian, Gizarte Inklusiorako Kontseiluan edo talde berezien parte-hartze kontseiluetan, horien beharrei ikuspegi integraletik ekiten baitzaie (4. bektorea).

Euskadik biztanleria zahartua dauka, eta jaiotza eta ugalkortasun tasa apalak. Zahartze aktiboa sustatzeko politiken alde egin nahi da, adinekoak menpekotasunik gabe urte gehiago bizi ahal izan daitezen eta gizarte zerbitzuen sistema sendo bat finkatzen aurrera egin dezagun. Horretarako estrategia sozial berriak zehaztu behar dira, Euskadiren antzeko eskualdeetatik eta punta politika kidekoak garatu dituzten eskualdeetatik ikastea beharrezkoa izango zaigu (5. bektorea).

4.5.17. Ingurumena

Nazioarteko sareetan –hala nola, nrg4sd, Network of Regional Governments for Sustainable Development; ICLEI, Local Governments for Sustainability; Encore, Environmental Conference of Regions of Europe; IMPEL, European Union Network for the Implementation and Enforcement of Environmental Law eta The Climate Group– parte hartzeak alderdi estrategiko bat izaten jarraituko du arlo honetan. Era berean, Euskal Deklaraziotik eratortzen diren aukerak bultzatuko dira, udalerrri emankor, iraunkor eta erresilientziadunen esparruan Europako hiri eta herritarako bide orri berria baita, Euskadi aitzindari duena eta Europa guztiko 300 bat erakunde atxiki zaizkiona (1. bektorea).

Ingurumena aukera iturri bihurtu da negozio berriak sortzeko eta enplegu berriak sorrarazteko, eta horren hazkundea ingurumen politika aurreratuak garatzeari lotuta dago. ACLIMA Euskal Ingurumen Klusterrarekin lankidetza sakonduko da, arlo honetan lanean euskal enpresak nazioartekotzea bultzatzeko.

Finantzaketaren ikuspegitik, finantza mekanismo eta tresna berri eta berritzaileak bultzatu eta garatuko dira, europar esparruko erakunde eta instituzioekin lankidetzan, eta nazioarteko finantzabideak identifikatuko dira ingurumen proiektu estrategikoak garatzen laguntzeko (2. bektorea).

Eusko Jaurlaritzaren estrategia "giza garapen iraunkorra" da, eta horren 4 zutabeetako bat enpleguaren, berraktibatzearen eta iraunkortasunaren aldeko borroka da. Gainera berak dituen 15 Herrialde-helburuetako bat berotegi efektuko gasak % 20 murriztea da, eta garapen iraunkorreko helburuekin konpromisoa hartzen du. Horrekin batera, URA Ur Agentziak bere lana Garapen Iraunkorreko 6. Helburuan txertatuta egiten du, hain zuzen, ur garbiari eta saneamenduari eskainitakoan, eta ezagutza trukeak nazioartean bultzatuko ditu (3. bektorea).

Bereziki garrantzitsua da, euskal ingurumen politikarako, mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetza. Horri dagokionez, Txinbadia+ Iurrealde lankidetzako europar proiektua bultzatuko da, INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra europar programaren esparruan garatzen dena, mugako lurrealdeetan garapen iraunkorra sustatzeko sortua (4. bektorea).

4.5.18. Lurrealde politika

Eusko Jaurlaritzak Euskadi lurrealde oreaktu, kohesionatu eta iraunkor gisa antolatu nahi du, ingurune degradatu gutxiagorekin, hiri berroneratze osoa eta bizi kalitatea lortuta, pertsonak protagonista direla.

Lurrealde politikaren inguruko nazioartekotzeak eskualde arteko, mugaz gaindiko eta nazioarteko esperientzia trukea eta lankidetza dakartzat plangintzaren arloan (1. eta 4. bektoreak), eta autonomia erkidegoaren lurrealde esparruan eta udalen lurrealde esparruan hiri agenda zehaztu, garatu eta aplikatzea (2. eta 3. bektoreak).

Halaber, tokiko edo eskualdeko beste erakunde batzuekin lankidetzen jardungo da kudeaketa eta esku-hartze ereduak ikertu eta garatzen, auzo eta hirien garapen iraunkorra lortzeko, finantza mekanismo berritzaileak sustatzeko eta Europako finantzabideak identifikatzeko, auzoetan esku-hartze integraleko jarduerak egite aldera, bereziki egoera ahulenean daudenetan (2., 3. eta 4. bektoreak).

4.5.19. Etxebizitza

Euskadiko etxebizitza politikak erreferentzia bat dira atzerrian, eta berezi-bereziki etxebizitzaren kontzeptu sozialarekin zerikusia duten puntuetan, etxerik gabeko pertsonei etxebizitza eskubidea eta etxebizitza independentea izateko eskubidea bermatzen baitzaizkie. Etxebizitza politiken euskal eredu jokabide on bezala nazioartekotzera bideratuko jarduerak garatuko dira. Era berean, hirietan maila globalean komunak diren arazoak moteltzeko tresnak bultzatuko dira, Euskadin ere eragina baitute, hala nola etxebizitza egokien urritasuna eta etxebizitza azpiegiturak hondatzea (1. eta 3. bektoreak).

Era berean, beharrezkotzat jotzen da politika publikoko tresna berriak erabiltzea, eraikuntzako efizientzia energetikoaren arloan jarduera berriak garatu ahal izateko. Horri dagokionez, Europako herrialde eta eskualdeekin harremanak izaten eta sendotzen jarraituko da, efizientzia energetikoan eta etxebizitzaren finantzaketa referentzia diren ereduetatik ikasteko (4. eta 5. bektoreak).

4.5.20. Ogasuna eta ekonomia

Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa ekonomikoak eta euskal herri-erakunde guztienak zorroztasun eta erantzukizun printzipioari jarraitu behar dio. Finantzen saneamendua eta aurrekontu orekaren helburuekiko konpromisoa mantendu behar dira, iraunkortasun ekonomikoaren berme direlako.

Interes sektorialean sustapenaren esparruan, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun arloarekin batera, 250 milioi euroko funts publiko-pribatu bat eratzea bultzatuko da, potentzialtasun teknologikoa eta nazioartekotzeko potentzialtasuna duten euskal enpresen hazkuntza eta sustraitzea bermatzeko (2. bektorea).

Jaurlaritzak politika berri bat nahi du, Europako esparruarekin lerrokatua, defizit publikoaren kontrola modu orekatuagoan konbinatzeko. EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2014-2020 Euskal Herriko Eragiketa Programaren kudeaketa efizientea garatuko da, eta bere Jarraipen lantaldeetan partaidetza aktiboa mantenduko da (4. bektorea).

4.5.21. Hezkuntza

Hezkuntza gizartearen eta pertsonen aurrerakuntza faktore nagusia da. Euskadik nazioartean gizarte lehiakorra izan nahi badu, ekitaterantz eta bikaintasunerantz guziz orientaturiko hezkuntza sistema bat eduki behar du, ikasle bakoitzaren gaitasunen garapenik handiena bermatuko duen hezkuntza sistema bat. Haur eta Oinarrizko Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoaren esparruan prestakuntza nazioartekotzearen ingurukoak izango dira arlo honetako jarduerak.

Lehen Hezkuntzaren eremuari dagokionez, Heziberri 2020 Planaren eta Hezkuntza eta prestakuntza arloko Europako lankidetzarako 2020 esparruaren testuinguruan jarraituko da lanean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoari dagokionez, estrategiaren indarraaldi berrian Erasmus+ esparruan mugikortasun eta lankidetza proiektuak sustatzen jarraituko da, hezkuntza maila honi europar dimensio bat eskaintzen jarraitze aldera. (4. bektorea).

Nazioartean hazi nahi duen herrialde batek herrialde eleanitzuna izan behar du. Horretarako, ingeleszeko prestakuntza zabaltzera bideratutako neurriak ezartzen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloan atzerriko bigarren hizkuntza bat ikastera bultzatzen jarraituko da.

Azkenik, irakasleak aldaketaren eta hezkuntza hobetzearen eragile nagusiak direnez, irakasleen prestakuntza indartzen jarraituko da, Europaren testuinguruan txertaturik irakasleen prestakuntza eredu berri bat ezarriaz, Erasmus+ europar proiektuan Euskal Herriak parte hartzeari jarraipena emateko (4. bektorea eta 5. bektorea).

4.5.22. Lanbide heziketa

Euskadiri bere lanbide-heziketa eredua aitortzen zaio. Eredu hau nazioartekotzea bultzatzen jarraituko da, Lanbide Heziketaren Euskal Campusa sortuz. Era berean, TKNIKA erreferentzia izatea indartuko da, UNESCOren UNEVOC sareko kidetasuna aitortu zaionez gero, lanbide heziketako ikerketaren eta berrikuntza aplikatuaren garapenean hezkuntza erakunde aitzindaria delako, bai teknologietan bai sektore aurreratu eta oso aurreratuetan (1. bektorea).

Lanbide Heziketaren eremuan Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparru berria ezarriko da espezializazio programak diseinatzeko, enpresetan sortu diren beharren arabera, eta goraka datozen jardueretara bideratutako programak diseinatzeko, bereziki Euskadiko RIS3 estrategian zehaztutako abagune esparruetan eraginez. Beharrezkoa bada atzerriko herrialdeetan plantak kokatuta dituzten euskal enpresei lagundi egingo zaie planta horietan lan egiten duten giza baliabideak prestatzen eta trebatzen (2. eta 4. bektoreak).

Ikasleen mugikortasunaren alde egiten jarraituko da Erasmus+ programaren bitartez, Europako enpresetan egin ditzaten nahitaezko praktikak. Era berean, atzerriko beste LH ikastetxeetako ikasleak modu normalizatuan hartzeko bideak garatuko dira, euren praktikak Euskadiko enpresetan egin ahal ditzaten (5. bektorea).

4.5.23. Unibertsitateak eta ikerketa

Eusko Jaurlaritzak unibertsitateen eta ikerketaren arloa nazioartekotzearen alde egingo du legegintzaldi honetan, eta jarduera berriak sustatuko ditu euskal unibertsitate sistemari lotuta Nazioarteko Bikaintasun Campusa bultzatzeko. Era berean, BERD bikaintasunezko euskal ikerketa zentroak nazioartekotzeko prozesua indartuko da, beren eremuan mundu mailan nazioarteko erreferentzia zentroak izan daitezen (1. bektorea).

Enpresa ehuna eta unibertsitate sistema batera nazioartekotzeko aukerak sortzen bideratutako unibertsitate-enpresa programak garatuko dira. Unibertsitate Enpresa Euskal Estrategia jokabide ontzat erakutsiko da. Euskadiko unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzari ere lagunduko zaio, eta unibertsitateen eta Euskal Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko gainerako eragileen artekoari ere (2. bektorea).

Prestakuntzaren eta ikerketaren kalitatea ebaluatu eta egiazatzeko irakaskuntza ereduak sustatuko dira nazioarteko testuinguruan lankidetza maila handiagoa ahalbidetzea, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak Europako sareetan duen presentzia areagotu egingo da (4. bektorea).

Euskal unibertsitateetako eta bikaintasun ikerketa zentroetako talentua biltzea eta ikasleen eta langileen nazioarteko mugikortasuna bultzatuko dira (5. bektorea).

4.5.24. Osasuna

Osasuna gizakiaren oinarrizko eskubidea da, eta, gainera, euskal gizarteak estimazio gehien dien balioetako bat. Euskadin, pertsonak dira osasun arloko politiken ardatz nagusia, eta erreferentzia dira gizarte politikak osasun politikekin integratzeari dagokionez. Arlo honetan nazioartekotzearen lehentasunezko iloak Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzen duten eta ezagutza atzitzen duten bektoreetan zentratuko dira. Horri dagokionez, nazioarteko eztabaidaguneetan parte hartzea bultzatuko da, eredu honi ikusgaitasuna ematearren (1. bektorea).

Osasunaren euskal profesionalak nazioarteko bikaintasunezko zentroekin harremanetan jartzea sustatzeaz gain, Europako I+G+b proiektu, partzuergo eta sareetan parte hartzea bultzatuko da. Horizonte 2020 eta Innovative Medicines Initiative (IMI) programaren testuinguruan jarduerak areagotuko dira, eta harremanak ere estutuko dira EBren CHAFEA Kontsumitzale, Osasun, Nekazaritza eta Elikadura Agentzia Exekutiboarekin, Komunikazio Sareen, Edukien eta Teknologiaren Zuzendaritza Orokorrarekin eta DG SANTE Osasun eta Elikadura-segurtasun Zuzendaritza Orokorrarekin (4. bektorea).

Halaber, Euskadiren antzeko kasuistikak dituzten beste zona geografiko batzuekin alde biko harremanak eta hitzarmenak egiten jarraituko da, zahartze aktiboaren, berrikuntzaren eta IKTak osasun sektorean erabiltzearen inguruaren ezagutza atzitzeko helburuarekin. Horrela, osasun arloko erronka berriei erantzuna ematea eta Euskadiko osasun sistema hobetu eta modernizatzea ahalbidetuko duen arreta integratuko eredu batean sakondu ahal izango da, identifikatutako jokabide onetatik abiatuta berariazko plan eta programak garatzea bultzatzuz (5. bektorea).

4.5.25. Hizkuntza politika

Hizkuntza politikaren arloak euskara nazioartekotzera bideratutako jarduerak hartuko ditu bere baitan. Etxepare Institutua izango da jarduera horien aitzindaritza izango duen erakundea Euskadiko kultura sektoreekin lankidetzan.

Euskara ikastea bultzatzen jarraituko da, nazioarteko irakurle postuak, Euskarako eta Euskal Kulturako Katedrak eta Euskara Munduan programa baliatuaz. Horren osagarri, Euskararen Nazioarteko Eguna urtero ospatzen laguntzen jarraituko da gainera, hizkuntza nazioartean sustatzeko ekitaldi nagusia delako eta kanpoko euskal gizataldeen eta diasporaren kohesio elementua delako. Digitalizazioaren aldeko apustuak Euskadiko Liburutegi Nazional Digitala bultzatzea implikatzen du, euskal sorkuntza industrieik garatzen dituzten euskarazko edukiak gehiago zabaltzeko (1. eta 2. bektoreak).

Euskarazko edukiak nazioarteratzeko laguntzak areagotu egingo dira, eta horrela sortzaileek eta zinemagintzako eta literaturako eragileek Euskaditik kanpo zirkulatzea sustatuko dute. Halaber, sare digitaletan duen presentzia handitzeko, euskararen erabilera bultzatuko da Interneten eta komunikabide digitaletan duen presentzia sustatuko da, arreta berezia jarriaz gazteentzat garatutako edukietan (2. bektorea).

Euskara Iparraldean sustatzeari dagokionez, Euskararen Erakunde Publikoarekin erakunde lankidetza irekita mantenduko da, eta indarrean dagoen urte anitzeko esparru hitzarmenean ekintza gehiago egingo dira (4. bektorea).

Nazioarteko ingurune eleanitzun honetan, euskarak bere lekua aurkitu behar du munduko beste hizkuntzeken batera. Testuinguru honetan, gutxiengo hizkuntzak eta eskualdeko hizkuntzak dituzten lurralteetako gobernuen lankidetza hitzarmenak egiten jarraitu da, horrela hizkuntza politikaren arloko ezagutza eta esperientziak ikasteko, erabilera sustatze aldera (5. bektorea).

4.5.26. Segurtasuna

Segurtasun arloko nazioartekotza segurtasuneko nazioarteko beste agentzia eta erakunde batzuekin alde biko harremanak izatea da, eta nazioarteko eztabaidagune eta sareetan parte hartzea. Ertzaintza beste herrialde batzuetako segurtasun gorputzetarako nazioarteko erreferentzia eredu gisa sustatuko da, bere ezaugarri bereizgarrietatik abiatuta (1. bektorea).

Bide segurtasunaren arloan, 2015-2020 aldirako Bide Segurtasun eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorreko Plan Estrategikoa aplikatuko da, 2020 urteko hildakoak 2010ean

hildakoekin alderatuta % 50 gutxiago izateko Europaren konpromisoa geure egiteko (3. bektorea).

Eragiketa eta inteligentzia aldetik nazioarteko lankidetza zabala eskatzen duen Europaren segurtasun estrategiaren barruan, Ertzaintzak kudeaketa organoetan modu aktiboan parte hartzea bultzatuko da. Polizia lankidetzaren arloan Europol eta Interpol bezalako nazioarteko erreferentiazko erakundeekin garatzen ari den lana finkatu egingo da. Horri dagokionez, nazioarteko antolakunde horien informaziorako eta espedienteetarako sarbidea lortzera bideratutako hitzarmenak bultzatuko dira (4. bektorea).

Atzerriko egonaldiak bultzatuko dira Ertzaintza osatzen duten pertsonen ezagutza tekniko eta juridikoak aberasteko eta segurtasun arloko mehatxu berrieik dakartzaten desafioei aurre egin behar dietenerako prestatzeko (5. bektorea).

4.5.27. Justicia

Justiziaren eremuan, Oñati International Institute for the Sociology of Law nazioarteko lege-soziologia institutuak zeregin garrantzitsua izaten jarraituko du, topagune zientifiko eta profesionalak errazten, eztabaida eta ikerketa proiektu komunak bultzatzen eta edozein jatorritako ikerlariak prestatzen justiziaren arloan (1. bektorea).

Ekintza eremu honetako jarduera nagusietako bat Europako esparruarekin Ierroatzea izango da, eta horretarako autogobernua eguneratzeko prozesuari ekingo zaio, EBren arau, estandar eta prozeduren arabera juridikoki eta legez bat datorrela bermatuta, elkarbizitza demokratikoan sakontzea eta kohesio eta justizia sozialean aurrera egitea helburu direla. Europako Justizia Konpontzailearen Eztabaidagunean aktiboki hartuko da parte eta Europar Batasunarekin prestakuntzarako lankidetza mantenduko da (4. bektorea).

Gazteentzako justiziaren arloan, delitu biktimen arretan eta doako laguntza juridikoaren bitartez justizia pertsona guztiengana heltzea bermatzen duten ereduetan neurri judizialak gauzatzen erreferentzia diren lurrardekin harremanak indartuko dira (5. bektorea).

2020rako BCEk 2014an argitaratu zenean modu eskematikoan jasotzen zuen laburpen taula bat, non Estrategiaren jarduera zein arlotan garatuko zen azaltzen zuena, jarduera hori ikasteko edo irakasteko arloetan sartzen ote zen kontuan hartuta. Estrategiaren aplikazioaren lehen urteetako esperientziak frogatu duenez, horretarako jarduera segmentatzea zaila da, egin diren nazioartekotzko jarduera asko eta asko alde batera edo bestera interpreta daitezkeelako. 2018-2020 aldirako sailkapen hori ez egitea erabaki da.

4.6. Jarduera eremu geografikoak

2020rako BCEk Euskadi nazioarteratzeko eremu geografiko estrategikotzat identifikatzen ditu zenbait herrialde eta eskualde. Euskaldunok atzerrian ditugun interesen parte handi bat erakartzen duten lurraldeak dira, eta lehentasunezko arreta jasoko dute 2018-2020 aldian. Zerrenda hori, hala ere, irekita dago maila sektorialean lehentasuna eman dokieken beste herrialde edo eskualde batzuetan sor daitezkeen harreman eta abagune puntualeen bultzadara.

2020rako BCE eguneratzeko prozesuak lehentasun geografiko simplifikatuagoak ezartzera eraman du. Hortaz, lehentasunezko izaerako eta lehentasunez esku hartzeko herrialdeen bereizketa desagertu egin da, eta irakasteko edo ikasteko aukerak eskaintzen dituzten geografien artekoa ere bai. 2014an proposatutako azpikategoriak horiek maila teorikoan egokitzat agertzen baziren ere, praktikan oso erabilgarriak ez direla erakutsi dute. Gainera, Eusko Jaurlaritzako sailen eta bere sektore publikoaren eragin handiagoa jasoko duten geografien (herrialde eta eskualdeen) kontzentrazio handiagorantz urrats bat eman da. Ondorengo taulak lehentasunezko herrialde eta eskualdeen zerrenda hau bat erakusten du.

6. Taula: Jarduera eremu geografikoak

| JARDUTEKO GEOGRAFIA EREMUAK | LEHENTASUNEZKO HERRIALDEAK | LEHENTASUNEZKO ESKUALDEAK |
|-----------------------------|--|---|
| EUROPA | <ul style="list-style-type: none"> • Alemania • Danimarka • Finlandia • Frantzia • Erresuma Batua • Suedia | <ul style="list-style-type: none"> • Akitania-Iparralde • Bavaria • Eskozia • Flandria • Gales |
| AMERIKA | <ul style="list-style-type: none"> • Argentina • Kanada • Txile • Kolonbia • Ameriketako Estatu Batuak • Guatemala • Mexiko • Peru | <ul style="list-style-type: none"> • Cundinamarca • Quebec • Querétaro • Minnesota • Ternua eta Labrador |
| ASIA | <ul style="list-style-type: none"> • Txina • Japonia • India | <ul style="list-style-type: none"> • Jiangsu |
| AFRIKA | <ul style="list-style-type: none"> • Hegoafrika | <ul style="list-style-type: none"> • KwaZulu-Natal |

Estatuez gaindiko erakundea den Europar Batasunaz gain, Europa lehentasun nagusiko eremu geografikoa da. Bereziki eta zehazki alde biko harreman arloan, Erresuma Batua, Alemania eta Frantzia dira Euskadiren kide tradizionalak, eta horiekin harreman sakonak ditu hain desberdinak diren eremuetan, hala nola erakundeenean, ekonomikoan (merkataritza bazkide nagusiak dira), zientziarenean, kulturarenean edo turismoarenean. Halaber, Suedia, Danimarka edo Finlandia bezalako iparraldeko herrialdeak sartzen dira, nazioartean ezagunak direlako euren gizarte ongizatearen maila altuagatik, eta, besteak beste, teknologian, hezkuntzan, gizarte arloan edo berdintasunean oso abangoardian daudelako. Europaren testuinguruan jarraituta, lehentasuna ematen zaie Aliantza Estrategikoen Sarea osatzen dutenak eta sarekada izan daitezkeenak, bai hurbiltasun geografikoagatik eta lotura historiko edo sektore anitzekoagatik izan, Akitaniaren kausan bezala, edota, gainera, lurralte homologoak direlako, adibidez, Flandria, Gales, Eskozia, Bavaria eta Quebec.

Ameriketako herrialdeak, era berean, lehentasunezko eremuak dira, ezarritako lotura historiko eta kulturalei eta garatutako erakunde eta merkataritza harremanei esker, bai Ipar Amerika bai Latinoamerika. Kontinente honetan, gainera, diasporako euskal gizataldeen kontzentrazio handia dago, eta aktibo handia dira Euskadi eskualde horietan nazioarteratzeko. Konkretuki, batez ere herrialde hauetan eragingo da, Estrategia zabaltzeko: Argentina, Kanada, Txile, Kolonbia, Guatemala, Mexiko eta Peru Latinoamerikan, eta Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada Iparramerikan.


Latinoamerika zabalkunde ekonomikoan dagoen eremu bat da, eta bere dinamismoagatik eta hazkunde itxaropenagatik nabarmentzen da; izan ere, han enpresa ekimenak, akademikoak eta kulturalak garatu ahal izango dira Euskadi eta bere eragileak aitzindari direla, bai eta ezagutza transferitzeko ekintzak eta zenbait arlotako proiektuak ere. Era berean, Mexikon dago Querétaro, eta Kolonbian, Cundinamarca, Aliantza Estrategikoen Sareko lurralteak. Elkartasunak ere leku garrantzitsua hartzen du Latinoamerikarekin euskal gizarteak dituen harremanetan, eta lotura hori estutu beharrekoa da.


Bestalde, Ameriketako Estatu Batuak lehen mundu potentziak jarraitzen du Euskadirako erreferentzia izaten enpresak nazioartekotzea eta inbertsioak, ekintzailetza, IKT edo kultura bezalako arlo estrategikoetan. Kanadaren kasuan, kultura politikan eta hizkuntza politikan erreferentzia eta elkarbizitzan eta kultura anitzasunean eredu izateaz gain, badirudi Europar Batasunarekin egindako Ekonomia eta Merkataritza Akordio Globalak (CETA) datozen urteetan euskal eragileentzat negozio aukerak eskainiko dituela. Kanadan eta Estatu Batuetan daude, hurrenez hurren, Quebec eta Ternua eta Labrador probintziak, eta Minnesota estatua, 2018-2020 aldian lotura estrategikoak sortzeko lehentasuna eman zaienak.

Asia, Japonia eta Txina, bestalde, lehentasunezko herrialde moduan goraka dotoz. Japonia erreferentzia da Industria 4.0, gastronomia edo kultura bezalako arloetan jokabide onak ikasteko. Bestetik, Txinan gertatzen ari diren aldaketa sozioekonomikoek gero eta aukera gehiago ari dira sortzen Euskadirako hezkuntza, ingurumena edo turismoa bezalako esparru hain desberdinietan. Munduko bigarren potentzia bere merkatuaren potentzial handiagatik nabarmentzen da eta inbertitzeko duen gaitasunagatik, bai eta euskal industrieik atzerrian instalatzeko aukeratzen duten helmuga nagusia delako ere. Era berean, Txinan dago Jiangsu probintzia, eta Euskadirekin duen harremana itun estrategikotzat jotzen da. India, bestalde, merkatu handia da gaur egun, mundu mailan presentzia handia duelarik eta biztanle gehien dituen bigarren herrialdea delarik.

Azkenik, Afrikako kontinenteari dagokionez, Hegoafrika ikusten da lehentasunezko herrialde gisa. Eskualdeko eragile ekonomiko nagusia izateaz gain, elkarbizitza eta giza eskubideak, justizia edo energia bezalako arloetan lankidetza aukerak sumatzen dira. Hegoafrikaren barruan KwaZulu-Natal probintzia nabarmentzen da bereziki lehentasunezko moduan aldi honetan harreman estrategikoak sortzeko.

2. Irudia: Jarduera eremu geografikoak





5.

ESTRATEGIA MARTXAN

5. ESTRATEGIA MARTXAN

Euskadi nazioartekotzeko lanean inplikatuta dauden eragileen aniztasunak koordinazio eta lankidetza mekanismoak eskatzen ditu ekintza koherentea eta denboran irauten duena ziurtatzeko. Helburu horrekin, hiru zutabe proposatzen dira: (i) gobernantza eredua, Estrategia gauzatzea ziurtatuko duten koordinazio eta lankidetza mekanismoak ezartzen dituena; (ii) jarraipen eta ebaluazio sistema, egindako jarduerak monitorizatuko eta Estrategia garatzearen lorpenak identifikatuko dituena, eta (iii) aurrekontua, 2020 arte Eusko Jaurlaritzak nazioartekotze arloan mugiarazi behar dituen baliabide ekonomikoak argitzen dituena.

5.1. Gobernantza eredua

2020rako BCE martxan jartzeak euskal gizarte osoa, Eusko Jaurlaritzako sailak eta bere sektore publikoa eta gainerako euskal erakundeak eta nazioartekotzeko euskal ekosistema osatzen duten kideak inplikatzen ditu. Helburu kolektibo honetan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio aitzindaritza lana eta Estrategia hezurmamitzearen koordinazioa. Horretarako, 2020rako BCEko gobernantza eredua osatzen duten 3 eztabaidagune ditu:

- Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea, Eusko Jaurlaritzaren barruan Kanpo Harremanen koordinazio eta plangintza bateratua bermatzen duena.
- Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea, euskal herri erakundeen arteko lankidetza eta elkarlan gunea, atzerrian ekintza bateratuak martxan jartzea ahalbidetzen duena.
- Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua, Euskadi nazioartekotzea sustatzen aholkua ematen duena eta euskal gizartea 2020rako BCE diseinatu eta zabaltzen parte hartza ziurtatzen duena. 2016ko uztailean sortu eta martxan jarrita sendotu eta burutu egin da 2014an zehaztu zen gobernantza eredua.

Aldi berrian, eredu hau hobetzen eta sakontzen jarraituko da, Estrategiaren hezurmamitze eraginkor eta koordinatu bat ziurtatzeko.

3. Irudia: Gobernantza ereduaren zutabeak



Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea Eusko Jaurlaritzako Sainko kanpo harremanak koordinatu eta planifikatzeko organoa da, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da Batzorde horren deialdiak egiten dituena eta Batzordea dinamizatzen duena. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko titularrak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzaren ordezkarri diren goi-kargudunek osatzen dute. Ondorengo taulak Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordeari dagozkion eginkizunak jasotzen ditu.

7. Taula: Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen eginkizunak

KANPO HARREMANETARAKO SAILARTEKO BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

- 2020rako BCEren nazioartekotzeko helburuak lortzena bideratutako ekintzak aztertza.
- Euskal kanpo harremanak koordinatu eta osoa planifikatzen, bultzatzen eta sustatzen laguntzen duten jarduera berriak proposatzea.
- Bere interes multisektorialak eta lurrealde interesak aldezko eta sustatzeko, Euskadiaren atzerriko Ordezkaritzen bitarte, ekintza aukerak aztertza.
- Sail guztiak Europako erakundeekin egiten dituzten ekintzetan, bereziki Europar Batasunarekin, Europako Kontseiluarekin eta Europako eskualde mugimenduarekin, koordinazioa bultzatzea eta lankide izatea.
- Eusko Jaurlaritzak beste herrialde, eskualde, hiri edo estatu azpiko erakundeekin mantentzen ditzakeen alde biko eta alde anitzeko harremanak aztertu eta proposatzea.
- Euskadien mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetza garatzeko neurriak aztertza.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak proposatzen dituen neurri berriak eztabaideatzea.

Iturria: 127/2007 Dekretua, abuztuaren 31ko

127/2007 Dekretuak ezartzen dituen Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen ohiko deialdiez gain, sailen arteko lan dinamika parte-hartzaileak garatu ahal izango dira,

nazioartekotze arloan lan elkarrekin egiteko guneak eta dauden sinergiak identifikatu ahal izateko.

Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea nazioartekotzeko etorkizunerako proiektuak komun jartzeko eta atzerrian eragin handiagoa lortzeko euskal erakundeen arteko lankidetza eta elkarlan organoa da. Batzorde honetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da batzordeburu eta Eusko Jaurlaritzako sailen eta Foru Aldundien, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburueta udalen eta EUDElen ordezkaritza dauka.

8. Taula: Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak

KANPO HARREMANETARAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

- 2020rako BCEren helburuak lortzeko euskal kanpo harremanak koordinatu eta bere alde lan egitea.
- Europako eskualdeen mugimenduan, eztabaidaguneetan eta nazioarteko organismoetan euskal partaidetza ziurtatzeko ekintzak eta Euskadiren mugaz gaindiko eta eskualde arteko elkarlanaren garapena aztertu eta proposatzea.
- Erakundeek eta eragile ekonomiko eta sozialek Europako erakundeekin, bereziki, Europar Batasunarekin eta Europako Kontseiluarekin egiten dituzten ekintzak bultzatu eta koordinatzea.
- Euskadien atzerriko Ordezkaritzen bitartez, lurralte interesak eta interes multisectorialak aldezteko eta sustatzeko dauden ekintza aukerak eta Euskal Etxeekin eta kanpoko euskal gizataldeekin ekintzak garatzeko dauden aukera guztiak aztertu eta proposatzea.
- Atzerriko erakunde ordezkaritzak Euskadin duen presentziaren berri izatea.
- Euskal kanpo harremanei buruzko prospekzio lana egitea, etorkizunerako helburu berriak eta lan iloak proposatuaz, nazioartean begiz jotzen diren aldaketei aurrea hartze aldera.

Iturria: 52/2008 Dekretua, martxoaren 18koa

Azkenik, Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua 2020rako BCEren esparruan Euskadi nazioartekotzea sustatzerakoan aholkua ematen duen organoa, eta Estrategiaren ikuspenna eta nazioartekotze helburuak lortzen gizartea integratzea ziurtatzen duena da. Hainbat eremutako eragileek osatzen dute, hala nola, eragile sozial, akademiko, kultural, zientifiko-teknologikoek eta ingurumen- eta enpresa-eragileek, besteak beste, nazioarteko esparruaren ezagutza zabala dutenak, betiere.

9.Taula: Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseiluaren eginkizunak

KANPO HARREMANETARAKO AHOJKU KONTSEILUAREN EGINKIZUNAK

- Joera global garrantzisuenak eta munduan duten eragina aztertzea.
- Kanpo harremanetarako jarraibideak eta orientabide estrategikoak ezartzen eta lantzen laguntzea.
- Kanpo harremanen eremuan ekintzak hobetzeko ekinbideak eta proposamenak egitea.
- Kanpo harremanen eremuari dagozkion gaiak aztertzea eta gai horiez aholku ematea.
- Nazioarteko jarduera nabaria burutzen duten eragile guztien elkar laguntza, lankidetza eta elkarlanari laguntzea.
- Kanpo harremanen eremuan urte anitzeko plangintza tresnen eta ekimenen berri izatea.

Iturria: 96/2016 Dekretua, ekainaren 28koa

5.2. Jarraipen eta ebaluazio sistema

Estrategiak badauka helburu bezala nazioartekotze prozesua Eusko Jaurlaritza osoak barneratu dezan. Helburua hau izanik, zenbait eremuetan esperientzia handiagoa bada eta protagonismo gehiago espero da eremu hauetarako: (i) kanpo harremanak, (ii) enpresak nazioartekotzea, (iii) kultura, (iv) turismoa, (v) garapenerako lankidetza eta (vi) kirola.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren kanpo harremanen eragina neurtu ahal izateko, jarraipen eta ebaluazio sistema bat ezartzen da eta sistema horren bitartez Estrategiaren 27 arlo tematikoetan nazioartekotze ekintzak behatu ahal izango dira.

Jarraipen eta ebaluazio sistema hiru tresna nagusitan oinarrituko da:

- Kanpo harremanen eragina neurtzeko adierazleen aginte koadroa
- Jarduteko 27 arlo tematikoetan jarraipena egitea ahalbidetuko duen ekintzen tipologia bat
- 2020rako BCEren Azken Txostena, XI. legegintzaldiaren amaieran Estrategia aplikatuta erdietsi diren lorpenak adieraziko dituena

2020rako BCEk, 2014an atera berria zenean, gonbita egiten zuen hausnarketa prozesu bat hasteko Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanen eragina neurtzeko sistema bat diseinatzeari alderatzen da, horren bitartez Euskadi munduko eragile global moduan nor zen eta Herrialde moduan zenbateraino nazioarteratuta zegoen neurtzeko adierazle multzo bat identifikatu edo diseinatu ahal izateko. Estrategiaren agindu hori izan zen 2016an "Euskadi nazioartekotzearen erradiografia" egitearen arrazoia; agiri horretan, nazioartekotzearen emaitzetan Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremanek duten eragina neurtzeko abiapuntuko adierazle hautatuak proposatzen dira.

Eguneratze honetan urrats bat gehiago eman nahi da, eta, horregatik, aldi honetarako jarraipen eta ebaluazio ereduau aurrera egitea proposatzen da, eta, horretarako, Estrategiaren pisua edukitzeten jarraitzen duten arlo tematikoetan: Kanpo Harremanak, Enpresak nazioartekotzea, Kultur, Turismoa, Garapenerako lankidetza eta Kirola.

"Euskadi nazioartekotzearen erradiografia" agirian ematen diren adierazle hautatuen artean, 2018-2020 aldirako Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak eman ditzaketen datuetatik abiatuta landutako adierazleen aginte koadro bat zehaztu da. 2016ko "Euskadi nazioartekotzearen erradiografia" agirian oinarrizko lerro bat ezartzea proposatzen da, adierazle horien eboluzioa 2020 arte zenbatetsi ahal izateko.

Ondorengo taulan, 2020rako BCEren eragina neurtzeko hautatutako arlo tematikoetan proposatutako adierazleak jasotzen dira:

10. Taula: 2020rako BCEren adierazleen koadroa

| ARLO TEMATIKOA | ADIERAZLEA | NEURKETA UNITATEA | ITURRIA |
|-----------------------------|---|-------------------|--|
| KANPO HARREMANAK | ▪ Eusko Jaurlaritzak izenpetutako nazioarteko akordioak | Kopurua | Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia |
| | ▪ Nazioarteko sareak Eusko Jaurlaritzaren partaideztarekin | Kop. | Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia |
| ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA | ▪ EAERen joera ondasun-esportatzalea | % | Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila |
| | ▪ Enpresa esportatzaille erregularrak > (50 K€) | Kop. | Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila |
| KULTURA | ▪ Euskarako eta euskal kulturako katedrak eta irakurle postuak munduan | Kop. | Kultura eta Hizkuntza Politika Saila |
| | ▪ Nazioarteko zenbat kultura ekitalditan hartzen den parte (lanbideko azokak) | Kop. | Kultura eta Hizkuntza Politika Saila |
| TURISMOA | ▪ Turismo gastua guztira (turismo hartzalea) BPGd-arekiko | % | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila |
| | ▪ Euskadira heltzen diren turistak | Kop. | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila |
| GARAPENERAKO LANKIDETZA | ▪ Garapenerako lankidetzarako laguntza/BPGd | % | Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia |
| KIROLA | ▪ Olinpiadetan parte hartzen duten euskal kirolariak | Kop. | Kultura eta Hizkuntza Politika Saila |

Halaber, 2020rako BCEk atera zenean planteatzen zuenaren arabera, Estrategiaren bigarren fase batean, jarraipen sistemak Jaurlaritzaren arlo tematiko bakoitzeko ekintza sektorialak neurtu eta ebaluatzeko modua eman behar zuen. Horri dagokionez, 27 arlo tematikoetan Eusko Jaurlaritzak darabilen nazioartekotzeko jardueraren jarraipena egitea ahalbidetzen duen ekintzen tipologiarengarik monitorizazio sistema bat ezarri da.

Gainera, Estrategia eguneratzeko prozesuan egin den diagnostikoan jarduera eremu guztien esparruan egindako ekintzak hierarkizatzeko eskaera bat identifikatu da, hobekuntza handia izango bailitzateke gobernuaren jardueraren jarraipena egiteko eta kanpo harremanen eragina neurtzeko.

2014-2016 aldean Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak egin duen nazioartekotze jardueraz Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egin duen jarraipenari esker, guztira 1.481 ekintza identifikatu dira, eta gehiagoranzko joera izan du 2020rako BCE aplikatzen hasi zen lehen urteetan (324 ekintza 2014an, 503 ekintza 2015ean eta 654 ekintza 2016an). Erregistratu den jarduera azterturik, 2020 arte Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze

jardueraren jarraipena egiteko 6 tipologiaren araberako kategorizazio hau proposatzen da, eta tipologia bakotzean 2018-2020 aldian lortu behar diren xedeak ezartzen dira.

11. Taula: Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jardueraren jarraipena egiteko monitorizazio sistema

| EKINTZA TIPOLOGIA | DESKRIPZIOA | 2018-2020 ALDIKO XEDEA (EKINTZA KOP.) |
|--|--|---------------------------------------|
| NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREETAN LANKIDE ETA PARTAIDE IZATEA | Alde biko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuen barruan Euskadiren protagonismoari eragiten dioten ekintzak edo nazioarteko sareen barruko ekintzak | 400 |
| PARTAIDETZA AKTIBOA NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA EZTABAIAGUNEETAN | Ekitaldi, argitalpen edo eztabaiguneetan nazioarteko garrantzia duten plataformetan Euskadik protagonismoz (antolaketa, standa edo hitzaldiak) parte hartzea | 350 |
| EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA PROSPEKZIOZ BERTARATZEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA | Ekitaldi, bilera eta eztabaiguneetan prospekziozko ikuspegiairekin eta rol protagonistarik gabe parte hartzea | 450 |
| ATZERRIRAKO BIDAIAK ANTOLATZEA | Euskadiren atzerrirako proiekzioan eragiten duten nazioarteko misio, ordezkaritza eta bidaiaik antolatzea | 200 |
| EUSKADIN DAUDEN ATZERRIKO ORDEZKARITZEN TOPAKETAK ETA/EDO HARRERAK | Euskadi bisitatzen duten nazioarteko ordezkaritzei abegi, harrera eta arreta egitea | 250 |
| FINANTZAKETA ETA DIRU-LAGUNTZA PROGRAMEN BULTZADA NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN | Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileentzako finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea | 250 |

2020rako BCE aplikatzen erdietsitako lorpenak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak XI. legegintzaldiaren amaieran landuko duen BCEren Azken Txostenean adieraziko dira. Agiri horrek, Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak Estrategiaren babesean garatu duten nazioarteko jardueraren mugarr nagusien berri emango du. Gainera, Idazkaritzak urtero barne jarraipen bat egingo du, jarduteko 27 arlo tematikoetan Jaurlaritzan garatu diren nazioartekotze ekintzen gainean.

5.3. Aurrekontua

2020rako BCEren esparruan nazioartekotze jarduera aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzako sailen eta haren sektore publikoaren baliabide ekonomikoak mugiarazi beharko dira.

Zaila da Jaurlaritzak nazioartekotzera eskaintzen duen aurrekontu guztsia zehatz zenbatestea. Horrela, batzuek nazioarteko jarduera nazioartekotasuna esplizituki identifikatzen duten partiden bitartez egiten dute, eta beste batzuek partida generikoen bitartez.

Izenburuan nazioarteko jarduerak hartzen dituela argi idatzita ez duten aurrekontuko partidetan jarduera horiek zorrotz identifikatzea eta horrela aurrekontuan sartu ahal izatea ez da hain begi-bistako lan erraza. Horretarako, 2020rako BCEn dauden 27 arlo tematikoetarako aurrekontu esleipenaren zenbatespena errazteko, Estrategiaren 27 ekintza eremueta nazioartekotzeari buruzko aurrekontu partidak identifikatu ahal izateko azterketa bat egitea proposatzen da, programazio estrategikoaren aldian egiteko.

Zertzelada horiek eta uneko datu eskuragarritasuna kontuan hartuta, 2018-2020 aldirako Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzeko izendatu duen gutxieneko aurrekontu bat egin da, eta 2018an laurogeita bederatzi milioi hirurogei mila hirurehun eta laurogeita hamar euro da. Aurrekontu hori kanpo harremanen, enpresak nazioartekotzearen, kulturaren, turismoaren, garapenerako lankidetzaren eta kirolaren eremueta horretarako izendatutako aurrekontuen batura da. Ohartarazi beharra dago eremu bi gehitu direla 2014ko aurrekontuetara eta aurreko planean ezarri zenaren aldean handitu egin dela.

Aurreikusita dagoen urteko aurrekontu gehikuntza % 1,1koa da 2019an, eta % 1,4koa 2020an.

12. Taula: 2020rako BCEren aurrekontua

| 2020RAKO BCE AURREKONTUA (ZIFRAK €-TAN) | |
|---|------------|
| OSAGAIA | 2018 |
| Kanpo Harremanak | 8.000.000 |
| Enpresak nazioartekotzea | 23.500.000 |
| Kultura | 2.596.390 |
| Turismoa | 7.600.000 |
| Garapenerako lankidetza | 46.000.000 |
| Kirola | 1.364.000 |
| GUZTIRA | 89.060.390 |

NAZIOARTEKOTZE
ESPARRU ESTRATEGIA
2020REN EGUNERATZEA

*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

